

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Hendaia



Aurkibidea

Udalerrria: Hendaia

Sarrera



Hendaia Lapurdiko bosgarren udalerririk populatuena da, Txingudi eskuin aldean kokatua, Bidasoa ibaia itsasoratzen den lekuan, Lapurdi itsasegian. Hendaia Kantonamenduko herri nagusia da. Udalerrri hauek ditu mugakide: Hegoaldean, Biriatu; ekialdean, Urruña; mendebaldean, Irun (Gipuzkoa); eta, Txingudiren beste aldean, Hondarribia (Gipuzkoa). Irun eta Hondarribiarekin batera Txingudiko metropoli-eremua osatzen du, 90.000 biztanle dituena. Bertako berezko euskalkia lapurtera da.

- **Biztanleak:** 15.976
- **Euskaldunak:** %8,73

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **8**
- Zintak: **8**
- Pasarteak: **121**
- Transkribatutakoak: **39**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **121**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Gazte gara gazte
- IKER taldea

Hizlariak

Gorka Artetxe Sarasola (1987)



1987ko irailaren 20koa da Gorka, Lasarten jaioa, eta bi urte inguru zituela Hendaia bizitzera joandakoa aita, ama eta arrebarekin. Aita oriotarra du eta ama lasartearra. Magisteritza ikasketak hasiak ditu, heziketa fisikoko espezialitatean. Miren arrebarekin batera eskaini zigun elkarrizketa, Hendaia mediatekako gela batean, eta arrebaren eskutik jorratu zituen hainbat gai euskalkiari, hizkuntza joera pertsonalei, aisialdiko ohiturei, genero kontuei edo gizarte gaiei lotuak.

Miren Artetxe Sarasola (1985)



1985eko ekainaren 6an jaio zen Lasarten. Lasartetik Hendaia joan zen anaia eta gurasoekin bizitzera, baina hainbat lekutan bizi izan da gero: Gasteizen, Bartzelonan ... Ama lasartearra du eta aita oriotarra. Anaia gazteagoa du, Gorka, eta elkarrizketa elkarrekin egin genien. Euskal Filologia ikasketak ditu, bertsolaria da eta Hendaia mediatekan bildu ginenean tesia egiten ari zen (Bertsolaritzaren transmisioa eta euskararen eragina Ipar Euskal Herriko gazteengan), Mintzola - Mikel Laboa ikerketa bekaren bidez. Aisialdiko hainbat konturi buruz dihardu Mirenek, Euskal Herriko gazteen parranda egiteko ohiturez, hizkuntza joerez, genero kontuez eta abar.

Mixel Berra (1928)



Espainiako gerrako errefuxiatua, haurtzaroan, Pausun hazi da Mixel. Bigarren Mundu Gerrako okupazioa ere ezagutu du. Laborantxaz bizi izan da beti. Bordaria izan da, eta ez du hain aspaldi bere baserriko jabea dela... baina pentzeak eta alorrak etxez bete dira artean. Hendaia etxerik zaharretakoan bizi da.

Andoni Etxarri (1943)



Gurasoak errefuxiatuak zirenez, aita pasaitarra eta ama hondarribiarra, Hendaian jaio zen Andoni. Garaian, errefuxiatuak gaizki ikusiak ziren, eta horien haurrek trufak jasaten zituzten eskolan. Euskal munduan ibilia da Parisen. Soko enpresako sortzaileetan da, bai eta Hendaia ikastolako sortzaileetan ere. Bigarren Mundu Gerratik landa, Olentzeroz mozorrotu zen, haurra zela. Kontrabandan ere aritu zen aitarekin, txiki txikia zela. Itsasoko ondareaz ere arduratzen da.

HEN-005 Hizlari ezezaguna (1926)

Extefana Irastorza (1925-2018)



Donostiako Altza auzoan sortua izanik ere, Hendaian, eta laborantzan, ereman du bizi gehiena. Espainiako Gerra eta Bigarren Mundu gerra bizi izan ditu. Bere sortetxea (Asporots berri) lurrean da gaur egun. Bere penak olerkietan etzaten ditu.

Hélène Olaizola (1933)



Urruñan sortua, Hendaian bizi, bertako etxerik zaharrenetako batean, [Mixel Berra](#) bere senarrarekin. Laborantzaz bizi izan da. Txikitari esne saltzera joaten zen karrikara. "Enfant de Marie" delakoa zen gaztetan : dantzan aritzea, besta egitea debekatzen zion Elizak, eta batez ere apezak. Gero bordari izan da, eta gaur egun erretretan, etxeko jabe.

Eustaquia Urkia Berra (1929)



Hondarribian sortua, Hendaian bizi. Gerra Zibila hasi zenean, Eustaquiak 7 urte zituela Hendaia ihes egin zuen familia osoak, aitaren barkuari esker. Bizi guztia Lapurdiko herrian eman du. 40 errefuxiatu etxe bateko sabaian nola egon ziren oroitzen du. Emazteen lehengo bizimoldeak ere deskribatu ditu, eta Bigarren Mundu Gerrako oroitzapen bereziak ditu, batez ere Gestapoak bere aita nola harrapatu nahi izan zuen, honek jendeak Gipuzkoara pasarazten baitzituen gordezka, beti bere barkuarekin. Dantzazale amorratua ere bada Eustaquia, eta Hendaia dantzatzeko aukera guti eskaintzen duela iduritzen zaio.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Eskolan, euskaldun izateagatik baztertuak

- **Hizlaria(k)**: Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: HEN-001/007
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:11:25. **Bukatu**: 00:15:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:

Euskara » Euskararen egoera

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Euskara » Euskararekiko sentimendua

- **Laburpena:** Ez du eskolako oroitzapen onik. Hasteko, eskolako bidean Hendaiaiko arma fabrika ondotik pasa behar izaten zuen, eta fabrika parera heltzean entzuten zituen tiroek ohartarazten zuten eskolara hurbiltzen ari zela. Gainera, eskolan frantsesez egiten zen eta ezin zen, noski, euskaraz egin. Irakurtzen eta kontatzen azkar ikasi zuen Xtefana, baina, gramatikarekin eta idazlanekin ez zen ongi moldatzen. Horren ondorioz diskriminatuta sentitu izan ziren, Xtefana eta bere gisakoak, baserritarrak, euskaldunak, ez baitziren besteak bezain ongi jantziak, beste hizkuntza bat baitzerabilten eta gogoan du nola kaleko neska batzuk ez zuten haiekin jolastu nahi izaten. Eta horrek zer pentsatua ematen zion. Katixima, eskola ez bezala, euskaraz egin zuten Hendaian.

Transkripzioa

- Eta eskolaz ze oroitzen duzu?

- Eskolaz ba... eskolako oroitzenak ez hain onak. Ez dut sekulan erran etxean ez naiz gan eskolat, nere ahizpa gaztenak bai, harek, harek ez zuen... erraten zuen garbiki "ez dut gan nahi eskolat" . Ez, ni beti gaten nitzen eskolaat. Eta eskolaat hurbiltzen nintzelaik, orduan bazen arma fabrika eskolako onduan, ["armerie"]; bazien 70 langile orduan Hendaian arma fabrika hartan. Eta harat hurbiltzen nintzelaik, aitzen nuen tirak iten, pan!pan!pan! Eta banakien heiek aitzian eskola hurbil nuela eta orduan zintzurra zerratzen zitzaian eskola hurbil zelako. Eta gero, eskolan, frantsesa pittat bagindakiun ahizpekin-ta mintzatua, ahizpa zaharrokuakinta mintzatua, eta eskuara. Bainan han ez zen eskuaraz iteik. Irakurtzen instateko ikasi nuen eta kondatzen ere ba, zifrak berak zien eskualdunak eta frantsesak. Bainan gero zonbeit ["langue"], "congugation" hoiek eta aditzak eta gero zerak ere ba, "redaction" eta hoiek, banakien ze nahi nuen erran nahi nuen eskuaraz, baina ez nakien frantsesez erraten.

- Hiztegiak ez zinuen?

- A! Ez, ez,ez, ez, hiztegiak ez zen; ez zen /etzen/ hiztegiak, pentsa hori! Eta ez zen ere izkribatzeko "bic" edo "crayon" zer horietatik e! Artuazan, bagenituen krayonekin eta gero "plüm" a eta, zera, "en cria", tinta, eta han tintan, pluma tintakin izkribatzen zen. Eta, bon, hara. Ez ditut baitezpada oroitzen txarrak, baina halere nere buruari iten nion. Bainan zonbaitetan karrikar neska zonbait ez zuten /etzuten/ jostatu nahi guekin; beharbaa gu, kanpainakoak, ez horren ongi bestituak, bertze mintzaira bat konprenitzen ginduen, beste mintzaira bat ginduen gu elkarrekin rekreazionean-eta ginelaik. Eta bon, halako zerak bazien, hortan sofritzen zen. Eta gero, lagun bateri beti erraten diot, ez daki eskuaraz ta erranen dut frantsesez: "écute Andre tu etais la plus chentillon copine á l'ecole parce que tu voulais jouer avec toi"; "Lagunik hobena zinen, Andre, guekin, uzten gintuzun jostatzen zuekin". Eta holako zerak. Ta nere buruari iten nion "nor naiz ni orduan?" ta ni bezela bertziak ere, kanpainakoak eta eskualdunak. Ta nik nire buruari iten nion "nor naiz ni orduan?" hola izateko pixkat behex. Eta katexima eskuaraz egin dut Hendaian. Hartan liston nintzen e! Hartan ez dut sekulan punimenduik izan, e, katiximan.

- Eskolan bai? Punitua izan zira?

- Bai, eskolan punitua izan naiz galdetu niolako lagunari ian holako hitzek, hitz... banakien eskuaraz erraten baina ez nakien frantsesez. Harek... isil-isilik erran nion eta [harek eman nion], ta gure maitrisak —erraten ginuen bezala, [maitresa]—ikusi ninduen eta erran ninduen "Stefanie zato honat, eman zaite hor xokoan belauniko" eta orduan nigar egin nuen goxoki, e. Hola zen...

1.2. Euskararen balioaz alabari esker ohartu zen

- **Hizlaria(k)**: Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: HEN-001/008
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:15:25. **Bukatu**: 00:17:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Euskara » Euskararekiko sentimendua

- **Laburpena:** Alaba irakasle du, euskaraz, Urruñako ikastolan. Horrek euskararekiko beste ikuspegi bat eman dio. Izan ere, alabak euskaraz irakasten hasiko zela iragarri zionean, bere barruan zerbait aldatu omen zen. Bera euskaraz aritzeagatik eskolan zigortua zeneko garaiak eta oraingoak alderatuta, hauxe etorri omen zitzaion burura: "Hara, hi ere norbait bahintzela hire euskararekin!" Orduan konturatu omen zen bere euskalduntasunaz.

Transkripzioa

Eta gero neetzat izan da nere argitze bat eskuararen gainean alabak erakutsi du, erakasle izan da, eskuarazko... eskuaraz, Urruñako eskolan. Eta, egun batez, senarrakin nitzen han nere lanian, [...], saltegi bat baiginduen eta deitu ninduen eta "Ama, baduzu —ez da aspaldi gauz hortaz, e? Hogeta hamar urte?— ama, baduzu kadira bat jartzeko?" ta "Ba, zertako?" ta "Jar zaite. Eskolan eskuaraz erakutsiko dut!", "Aaa. Zuk eskuaraz erakutsiko duzu eskolan?? Eta ni "punni" egon naiz eskuaraz hitz bat in nuelako?" Eta orduan, nere buruan baitan, nere baitan, pasa zen zerbeit "A! horrax zure norbeit... —ez, ez nun hola pentsatu—, hi ere norbeit bahintzela hire eskuararekin!" Eta hartu nuen halako... Ez dakit nola erran hitz hori, ez dut esplikatzen ahal. Bon, izaite bat banuela nik ere, nortasun bat, nere nortasuna hartan sentitu nuen. Alegiya, eskuaraz banakila, eskualduna nitzela, eta nere etxeko mintzaira hura zela bakarrik, eta ni're Hendaiakoa nitzen nere eskuararekin. Eta hortan izan nuen nere nortasun gisa bat.

1.3. Hendaiaiko euskara aldatuz doa

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-006/027
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:53:18. **Bukatu:** 00:56:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararekiko sentimendua
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Lehengo euskara eta oraingoa maite ditu, baina errespetua eskatzen dio bere euskara "xaharrari". Hitz asko galtzen ari direla dio.

Transkripzioa

- Euskara ttipitu dela ta, zuk erraiten duzun euskara xahar hura ere...
- Eskuara... gue ondotik ez da eskuara xaharrik gehio e! Nik'e nahasten ditut hitz batzuek. Gaztiekin, edo irratiakin edo...
- Halare euskara da, ez? Hala ere eskuara dela ikasten dutena, ez? AEK-n ikasten dutena edo...
- Bai, nik ez dut deus'e kontra, e! Nik ez dut... bon, eskuara behar baldin badugu betu, bon, utzi behar da jakintsuneri edo... responsabilitatia duteneri, mais, nik... eta gustura egiten dut eskuara xaharra... eskuara xaharran errespetua ere izaitia. Zeren nere aita nere eskuaran... nik aita ta amakin ikasi dut eskuara, eta gero ikusten dut baditugula hitz anitz galduak eskuara xaharran. Guk... hor ikusten duzun hori?
- Bai.
- Hor jaten... jarrita dien toki hori, guk "ipularra" deitzen dugu.

- Ikularra?
- "Ipularra". Nun da killua? Ipularrian. Bon. Ipularra. "Sorropila" zonbaitek, guk "ipularra", lehenoko eskuara xaharrian. Eta bertze gauza anitz, hitz anitz badie ez dienak baitezpadakoak. Baiñan eskuara xaharrian erabiltzen zienak.
- Ez da hain aberatsa gelditzen zure iduriko?
- Ze...?
- Aberastasun hori galtzen da? Holako hitz horiek galduz bezala?
- Ez dakit... ni ez naiz nihor gauz hori juiatzeko. Ez dakit, mais, galtzen da orroitzapen bat, ondare bat. Hori segur, e! Ondare bat. Zeren nik mintatzen naizelaik lehenoko zer batzuekin, lehenoko nere adiñeko jende batzuekin, ni bezala mintzo die! Ez dute "dire" errai, "die". Ni bezala mintzo die. Bon, hortako gero neri igual zait uai eskuara hobetzia, e! Haurrerri erakusteko eskolan, eta nik'e iskribatu edo ixkiriatu egiten dut, zer inez e, bertze gisa batian e, behar bezala e! Ez laburtuz, ez hitzak laburtuz.

1.4. Lehengo irainak euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: HEN-006/028
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:56:24. **Bukatu**: 00:57:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Euskarazko irainik ez duela entzuten dio, galdu egin direla.

Transkripzioa

- Eta zera... hitz itxusiyetan ere. Ez dut gehio entzuten nik aitari aitutako... aitutako hitzak.
- Zein ziren?
- Zoin ziren? A, ez dakit erran behar ditutan! Mais, bat seurik ez zuen sekulan errain, hitz itxusiena "me cago en dios". Ez zuen errain, harek. "Debruen arima!". Hori ez dut sekulan entzuten. Ezagutzen duzu?
- Bai. Entzuten dut Urepelera noala.
- Debruen arima.
- Hori kanpaindarren...
- Guk "deubrien arima".
- A, "deubrien"...
- Eta ez dut bate izen itxusiya... juramentu itxusiya atxematen! Horra, badie gauzak... Bon, Urepelen oindion kanpaindar gisa zaizte, eskuara diferentakin... gu Hendaiaiko eskuara diferentakin.

2. Familia eta harremanak

2.1. Auzoko eta etxeko giroak, udan eta neguan

- **Hizlaria(k)**: Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: HEN-001/010
- **Iraupena**: 0:04:48. **Hasi**: 00:18:46. **Bukatu**: 00:23:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** Zuberno auzotegia oso alaia omen zen Extefanaren haurtzaroan. Klean orgak, idiak, eta zaldi karroak ikusten ziren. Uda aldean, arratsetan, klerona jotzen zuten auzoko mutil gazteek. Mixel Azkubekoa izaten zen hasten lehena, maiz, eta besteek erantzuten zioten, bakoitzak bere etxetik: Agerretik, Dorrondigitik... Neguan, aldiz, etxe barruko giroan kantatzen zen. Extefanaren etxean ohitura handia zuten, bai gurasoek eta bai ahizpek, lanean ari ziren bitartean, kantuan aritzeko.

Transkripzioa

Arratsetan Zubernoako kartierra izigarri alegera zen, alegera zen, mugimendutsua zen. Ikusten duzu /ikustenzu/, oain ez da nehor hemen ikusten, bon, denbora txarra da, baina orduan bazien zaldi-karruak, xakurrak libro zien... Nola erran, kanpainarrak beren idiyakin, orgakin... Eta gero auzuak landa batetik bertzeat aise pasatzen zien eta bertze bizimolde bat zen. Eta arratsetan gure [lanak], partikularzki negu partian. Uda partian kartiereko mutil gaztiak alegeratzen zuten kartiera; belarrak edo ogiyak, ogi-pikatziak izaten zien, auzoak, 3-4 auzo elkarrekin, elkar arituz, egun batian baten etxean, bertze egunian bertzian, eta gazte eta xahar, denak, e! Eta gero, ilunarretan, mutil gaztiak iten zuten klika, jotzen zuten klerona, Hendaian, eta prozesioneak izaten zien eta bon, kleronak jotzen zituzten mutil gazte guztiak eta lanak eta aziendak tratatu eta hasten zien kleronak jotzen. Bat hasten zen ta hori maiz Mixel Azkubekoa izaten zen, eta jotzen zuen klerona airoski, airoski! Gero... Hori Azkubekoa. Gero Agerretik —ondoko gibelaxioko etxetik—erreputa, gero, beste kartier gisa, Dorrondigitik, handik bertzia. Eta "ikusten duzu?" ta aritzen ginen gu neskak: "A! Hori zera da, Ambrosio da hori" ta "Ez, hori Mixel da". Hola. Eta gero neguan, gue etxean, gure etxeko hori uda partian zen eta gure kanpuan freskuran hoiek aitzen. Eta gero, neguan, gure etxian artuak sartu behar baldin bazien iten genituen, ez genituen auzuekin iten artuo-zuritziak, aita ehian behi-jezten aitzen zen hura beti kantari, behi-jezten beti kantari aitzen zen; ama sukaldean gaztainak egosten, hura're maiz kantari eta gu neskak bortz izaten ginen. Ahizpa zaharrena andre xahar batekin neskato zen. Eta bortz ahizpak arto xuritzen seiaruan eta hamar bat saski egiten genituen aatsero, eta kantari, denak kantari! Eta gero elkarrekin aritzen ginen: "Hik ez dun —anitzetan ahizpak elkarrekin noka mintzatzen ginen—ez dun xuxen kantatu, ez dun hola hori!" eta "Bai, ez dinat nik in, Sabinak in din" hola aritzen ginen pixkat, gatazkan elkarrekin. Eta gero... Hola. Eta gero afariya gure amak prestatua izaten zun, eltzekaria, gaztainak eta esnia. Ez zen goseik, baina ez zen... ez zen nola erran... frantsesak erraten duen bezela, [...]. Ximpleki, xumeki, ximpleki pasatzen zen. Eta... hola pasatzen zien. Eta mahainen inguruan, mahainen inguruan istorio anitz; nere aitamen agotik istorio anitz entzun ditut.

2.2. Bost ahizpak harroketara bainatzera

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-006/031
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:00:59. **Bukatu:** 01:03:08

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- **Laburpena:** Aita eta ama lo zeudenean joaten ziren bost ahizpak harroketara bainatzera, baina inoiz ez hondartzara. Amarekin ere joaten ziren igandetan harroketara.

Transkripzioa

- Eta lehen ere harreman guti zinu ten itsasoarekin zuek laborari etxean?
- Ez, ez, ez. Gaten giñen uda partian, aita ta amen siesta denboran gaten giñen. Ba. Sorginzilluat. Badakizu nun den?
- Ba.
- Ba. Sorginzilluat Asposberritik bide lasterrez, han izaten giñen, gaten giñen bortz ahizpak baiñatzeat. Bazen pendant haundi bat jausteko, mais jausten giñen. Han harroketan baiñatu, ta gero etxeat etorri, gero gu bazkaltzen ai giñelaik aita siestatik jeikitzen zen, belarrak edo hau ta hori ta hura. Bon, gaztiak giñen. Gaztiak giñen. Ez, ez, gaten giñen pixkat baiñatzeat, mais hondartzaat, playaat, sekulan e!
- A ez?
- Ez, ez, ez, ez.
- Harroketan?
- Harroketan, harroketaa gaten giñen. Ta ama... amakin'e bai gu ttikiyak, igande atsaldetan erematen gintuen amak zera... ta ez dakit nola jausten zen, ama nahiko lodiya zen eta ez zen baitezpada lixtua, baiñan jausten zen beti Sorginzilloat. Ba. Eta maite dut e nik uai ere... playan jende anitx atxematen dutela. Sobera jende da, sobera jende da. Eta oai'e behar balin badut itsas bazterrera gan, maite dut Haizabeat gatea. Haurrak ttikiyak nituelaik, Asposberritik gaten nintzen krakadakin eta harroketan baduzu bero baldin bada itzala, harroken itzala. Eta gero nere bi hurrek Haizabian ikasi dute igerika, hor sarrerako kanal zer hortan, mais ura zen garbiyokua, oain baiño garbiyokua zen.
- Orai...
- Bai, oai ez da garbitua edo ez da segitua edo... ez dakit nola erran.

3. Ohiturak eta bizimodua

3.1. Ezkontzan, festa xumea, baina, ona

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-001/014
- **Iraupena:** 0:05:21. **Hasi:** 00:26:22. **Bukatu:** 00:31:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** 1948an ezkondu zen Extefania. Beheko suan egin zuten laurogei pertsonarentzat bazkaria, goizeko esposak eta gero. Bazkaltzeko oilo salda, saltxitxoi eta pate pixka bat, haragia (aitak ordurako gordetako txahala) eman zituzten. Arratsean berriz afaria ematen zen, ezkontzetan, eta bien bitartean festa xumea, baina, ona izaten zen.

Transkripzioa

48an ezkondua naiz eta etxean egin ginduen dena. 80 persona bagiñen, [...] haundi batian dena garbitu ginduen, dena arbastaz, dena... pareta zaharrak gorde gintuen, zola ongi garbitu eta han in ginduen bazkaria. Eta nire kusin batek eta bi ttanttek egin zuten kozina guziya, parte bat su haundian, supazterrian eta bertzia "fourne" zahar bat zen, hartan; jan guziya han in zuten. Eta horra. Eta halere jende haundixkuak ere kozina hortan jan zuten, zeren memento hartan ez giñen etxetiarrak, ez giñen gure etxian... ez zen /etzen/ guria etxia. Etxe hori zen "Lanepuque" Hendaiko "mairie"na eta hura hilla da zerian, Alemanian, [...], erresistentzian, eta haren semia eta haren andria gonbidatuak zien. Etorri zien, etorri zien, eta heiek e' sanoki eta... Erran nahi dut, janari ona, kanpaiña etxe xaharretan ere egiten zela behar zena eta gustu onekoa. Eta ze jaten zen, bon, ez zen diruik buxeriat gateko eta aitak hil zuen... Bo, lehenik salda, beti salda bazen, oilluak edo oillarra edo ez dakit, bo, salda ona. Eta gero, oillo hura atxikitzen zen aatseko, eta salda jaten zen eguarditan ere. Goizetan izaten ziren, e, esposak. Eta... Beraz, salda hura, salda hura, eta gero, [...] "saucichon", pate pixkat-eta jaten zen eta gero haragiya. Eta haragiya anitz behar baitzen, aitak bazuen xahal bat atxikiya orduko, bon, [...], eta mintzatu zen buxer bat. Eskualduna zen buxer hura, [Sorrondo]; eta erran zion: "Ez nauzu hartuko, Agustin, zerori, xahal hori, guk etxian [iten] badugu hori, hondatuko dugu, baiño zuk, zu, buxera, zuk iten ahal zenduke behar bezala, horko [...] eta denak eta". Etorri zen ikusterat eta "Ba, ba, ba, ba". Eta erran zion buxera horrek —ikusten duzu / ikustuzu/ hortako holako harreman onak bazien jendien artian—, erran zion, Agustin horrek erran zion: "Zenbat persona zizte?," Hola, 80 bat, 70-80 bat. Eta [emanen] zaitut behar dena hortik. Neretzat geldituko da gauza anitz hortatik eta [emanen] zaitut horren ordain idikia". E? Idien puska batzuek, [...]. Eta, hola antolatu zien. Ikusten duzu /ikustuzu/, xahal batekin behar zen guziya antolatu zuen. Eta gero, eguerditan hori eta gero arratsian berriz afaria izaten zen, e? Eta gero, ez dakit, ez ditake esplikatu orduko sinpletasuna, zeren gaztiak... nere senarrak bazituen lagun anitz bazituen: koralan kantatzen zuen Urruñan eta gero lagun anitz bazien eta [txikiyak] zien. Eta lagunak denak han zien. Eta mutil gazte hoiek aritu zien pillotan pillotik gabe. Pillotik gabe. Eta "Hor, hor, hor. Hor duk!" eta ez dakit ze ta... Xaharrak denak hantxe jarri ta [...] irriz. Eta gero, bistan da, akordeon bat izaten zen. Akordeon bat bakarrik. Akordeon bat eta... dantzatzeko. Eta xaharrak´e ba, aritu zien, ba, ba, ba. Aritu zien. Eta holaxe, bizi sinplia zen. Bazakien jendiak sinpleki bizitzen, baina ere besta onak iten. Horra. Errespeto haundiyakin ta sinpleki. Behar zen guziyakin.

3.2. Herriko festetan, mutikoekin, dantzan

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-001/018
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:37:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
 - Aisia » Kultura » Dantza
 - Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

- **Laburpena:** Hendaian neska gazteek eskubidea zuten mutikoekin dantzatzeko. Alta, Extefanaren amak kontaktzen zion nola bere garaian Urruñan debekatua zen.

Transkripzioa

<p>- Eta mutikoekin dantzatzea libro zen? - A! Ba, ba, ba, ba. - Ez zen apeza ibiltzen…? - Ez, ez, ez, ez, guk libro ginduen mutikoekin dantzatzia, uroski, e! Baina ama zenak erraten zuen… Ama, ikusten duzu /ikustuzu/, hemendik ez urrun sortua zen Fagadi etxean eta, hoiek, Urruñakoa zen hori orduan. Eta gaten zen, gaten zien… Urruñan ibilia da eskolan. Eta gero , "enfants de mairie" zien Urruñan. Eta ez zutela dantzatzen ahal plazan. Urruñako Herriko etxeko azpiat sartzen ziela dantzan pixkat aritzeko, ez zutela libro dantzatzia, zeren apezek gero kongregazionetik kentzen ziuztela. Baina hori amen denboran zen, baina gure denboran ez zen hori.</p>

3.3. Laborariek tabakoa landatzen zuten

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-001/023
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:45:26. **Bukatu:** 00:46:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- **Laburpena:** Tabakoa garesti zenez, laborariek tabako-baratzeak egiten hasi ziren. Otea uzten zuten larre zokoetan, eta otearen erdian tabakoa landatzen zuten. Extefanaren aitak hamar bat tabako-landare izaten zituen, eta gendarmek harrapatuko ote zuten beldur izaten zen.

Transkripzioa

- Eta guardak jiten ziren etxera?
- Bai, bai, pasatzen zien guardak, pasatzen zien bai. Etxetan ez, etxetan ez, baiñan bidian pasatzen zien. Zer ikusi? Eta gero izatu zan mementu bat... tabakua egiten zuten kanpaindarrek berek, beren tabaku baratzia. Eta ba... pipatzailliak - orduan ere bazien e pipatzailliak- eta tabakua kario zen, aitak'e izaten zuen, ta iten zuen larre xoko batian ote haundiak utzi, eta ote haien erdian, ongi gordiak, eta bere tabakuak, hamar bat ondo edo hola ta gero hoiek'e pikatu, idortu, xintxilika atxikitzen zituen [...] batian eta tabako berriya. Eta gero pasatzen zien batzutan gendarmak, bizikletian.

3.4. Bi soldadu aleman mozkor ate joka gaez

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-006/006
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:13:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak,

kontakizunak

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena:** Bi soldadu aleman mozkor agertu zitzaizien etxean gauez, ate joka. Nonbait gehiegi edan eta ez zuten haien ostatuko biderik aurkitzen. Iratzeko bordan zuten ostatu, eta Extetanaren aitarekin egin zuten harainoko bidea.

Transkripzioa

Beste istoria bat erran behar zaitut, bi soldaruna, bi soldaru alemanena. Hortako ez zen beti bizi errexa, bizitzen giñen pixkat... batzuetan'e... Gauerditan zen, eta gue quarterrian bazen ostatu ttiki bat, Haizabia. Eta gauerditan atia jo zuten, gue etxeat, ta bortizki jo zuten. Eta denak atzarri giñen, aita jaiki zen, bi aleman, bi soldaru aleman, edanak. Ostatu ttiki hartan. Eta haiek zien tunela gardiatzen zuten gizon hoiek, soldaru hoiek, Iratzeko bordan bizi zianak. Mais, bidia ezin atxeman zuten. Jautsi zien kornixat, kornixa beste herrian da ostatu hori, eta, beraz, galdu zien been etxeat sartzeko. Eta aitari erran zioten "Monsieur, vous voulez nous accompagner?". "Et puis euh" esplikatuz zioten "tunel, tunel"; aitak konprenitu zuen kuxian Iratzeko bordako soldarua ziela, eta aita partitu zen haiek biekin, mais larrian goiti eta etxerik ez zen, toki deskartia. Ama, beti izitua hura, zer pasako zen, zer pasatzen al zen, eta atzarrarazi zituen, atzarriak zien, bi ahizpa zaharrenak ta erran zioten: "Aita... aleman soldarua zien, eta Iratzeko borda... Iratzeko bordakua, eta aita heiekin gana da. Izitzen naiz, zernahi pasa ditake eta, zoazte ondotik, mais heiek ikusi gabe". Ez dakigu been kolerakin zer egiten al zuten, e! Eta segitu zuten Iratzeko borda agertu arte, eta bon, baietz. Ta gero, ohartu zien halere aitak bi alabak bazituela ondotik etorriak, ta etorri zaizkoten nere bi ahizperi erranez "Mademoiselle, [...] tué papa". Eta bon, aita bere bi alabekin sartu zen etxeat, eta soldaduak gan zien been etxeat. Holako zerak izaten zian. Eta gero, egiya da soldaru alemanak diziplina haundikoak... bazien e, diziplina haundiya zuten soldarus hoiek, hoiek edanak izenagatik ez zuten bate intenzione txarrik, e!

3.5. Hendaiaiko judutarrak

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extetana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-006/013
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:27:04. **Bukatu:** 00:30:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Beste erlijio eta sinesmen batzuk
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian
- **Laburpena:** Jostun familia bat zen Hendaian, judutarrak. Hauen arriskua zela eta alabak ihes egin eta gurasoak harrapatu egin zituzten. Emakume heldu bat ere bazen, etxean armak zituena. Extetanaren ahizpari eman zion hauetako bat, ondoren aitari emateko.

Transkripzioa

- Eta gero juduak. Juduak ez ditugu aipatu, Hendaian bazien juduak.
- Baziren?
- Bai.
- Bazen komunitate bat edo?

- Ez, ez, ez. Ez, ez. Familia bat. Familia bat, jostunak zien. Tailurrak. Gizon arropak josten zituzten. Eskolako... eskola haundi hori, karrikan, Gaztelu Zaharren, hor zuten been zera... tailura. Eta alaba bat zuten, Arlette. Eta jakindu zutelaik bertzetan juduak biltzen zituztela, alaba igorri zuten noapait gordetzeat. Eta berak bilduak izan ziren. Eta gero bertze andre xahar bat —justuki nere ahizpa zaharrena neskato egotu zen andre xahar bat zen hori— nik enakin judua zela andre hori, eta hori berritz, bon, sentitu zuen geldituko zutela, edo bixita izin zuela. Eta bazuen arma etxian, bazuen pistola ttiki bat [pullita], eta ahizpa, esniakin gaten zen ahizpa, gan zen esnia eremateat, eta erran zion egun batez “Attend petit, tu me prends un pistole, et tu le caché bien a la poche” eta “kasu egizu bidian e, kasu egizu bidian e! Badakizu armak gaur egun... ta erraozu aitari etxian ungi gordetzeko etxian e!”, “Baietz”. Ahizpa, ta gero irri iten zuen berak, pasatu omen zen Hendaiaiko plazan... Portuko birian bizi zen andre hori. Ta Hendaiaiko plazan Hotel Imaz dena alemanek hartua zen ta han bazen zentinelak, [...], bee etxola ttikiyan. Haren aintziñean pasa omen zen espes bee buruari erranez “Hik badakik zer duten nik zarpan?”. Gaztia, hemeretzi urte, hemezortzi-hemeretzi urte. “Badakik zer duten nik zarpan?”. Ta, bon, mais, lanjera, bistan da, lanjera izigarria zen, zaldiya erori edo alemanek kontrola bat egin edo... izaten ahal zen. Eta, beraz, etorri zen ungi, ta aitari erran zion: “Aita, Madame Vellerrek eman nau pistola ttiki hau”. Aitak behatu zion: “Tristia! Hau zarpan etorri zara Hendaiaitik?” eta “Bai. Ta ungi gordetzeko erran nau, e!” ta bon, “Ekazu! Ekazu”, ta aitak gorde zuen teila ta zuren artian, teila gaiñian. Eta gero kanpain xahar hori utzi ginduelaik nere semia gan zen, bazakin istorioa. Eta gan zen atxeman nahi zik, ta nik’e nahiko nuen ikusi, e! Mais... ez dugu atxeman.

- Ez?

- Han hura... desagertu zen doike. Holako gauzak... holako lanjerak bazien, mais... bon.

3.6. Extefanaren bertsoak

- **Hizlaria(k)**: Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: HEN-006/034
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 01:03:33. **Bukatu**: 01:06:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: Txikitako oroitzapenen eta sortetxearen (Asposberriren) inguruko bertsoak abesten ditu Extefanak.

Transkripzioa

- Orduan kantatuko dut bertsu bat nere orroitzapen gazteko... gaztetako orroitzapenaz exkribarazi nauena:

GAZTE DENBORAN
Aspos berri etxean
bainaiz haunditua
nere bortz ahizpekin
aitamen onduan
laborari etxean

azkarki lanean
umore onarekin
gu denak batean.

Leku zoragarria
gure Zubernua
denak elkar lagunduz
baiziren auzuak
gure aziendak eta
ogi sail haundiyak
artua egotzeko
ondoan errotak.

Mahainaren inguruan
bazen alaitasun
istoriyak kondatzen
denak elkartasun
familiya guziya
zen dena osasun
kantua ta otoitza
zela goxotasun.

Gure etxe xaharra
nahi nuen erosi
nagusiyek etzuen
bate saldu nahi
geroztik da pittaka
lurrerat erori
orai etzanta baita
gure Asposberri.

Gizonak behar luke
izan zuhurtzia
arbasoek egina
ongi kontutzea
guk ere egin dugu
etxe bat gurea
izen pollitenean
deitzen da xabola.

4. Politika

4.1. Gerra zibila lehertu zenean, jendea Hondarribitik Hendaiara ihesi

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-001/025
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:47:32. **Bukatu:** 00:49:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Hamaika urte zituen Extefanak Espainiako gerra zibila lehertu zenean. Kanetako portura joan zen Extefana, eskolara joan

aitzin ohitura zuen gisan, eta hara non ikusi zuen Hondarribia sutan. Barku txikiak zebiltzan joan-etorrian, Hondarribitik Hendaiara jendea ekarriz. Negarra begian egon omen zen begira. Denbora airean joan zitzaion ordea, eta etxeratzean ahizpa haserre zuen zain, eskolara joateko garaia aspaldi pasa zela eta.

Transkripzioa

- Ba zapatak'e bai, zapata bernizak oroitzen naiz amak Irundik ekartzen zitula...eta horra, holako... ama bai. Eta gero, bai, neskatzetan eta-bai, mais jostatzea eta ez ... nere bi ahizpa zaharragikuak Irungo bestetan nik uste gaten zien e! Bai. Baiñan ni ez naiz sekulan izan hor, Irungo bestetan. -Eta gerla, ezagutu duzu gerla zibilia? Baduzu oroitzapenik?
- Espainiakoa bai. Espainiako gerla zibilla. Hamaika urte nituen eta eskola gan aintzinian orduan zaldi karruan gaten nitzen memento hartan eskolaat. Ahizpa zaharrenakin. Baiña eskola gan aintziñan, nere lana zen bi ontzi ttikikin Ganetta portuat, itsas bazterreat gatia bi klienteri esnia emateat. Eta han arribatu nintzen eta ze ikusten dut...Hondarribiya dena sutan zen, erretzen ari zen. Eta bazien hamar bat barku ttiki, amatxiyak, aitatxiyak, ama gaztiak beren haurrak lepoko batian bilduak, eta gan-etorka ibilki zien ontzi hoiak eta jausten zian Ganetta portuan. Eta badakit, memento hartan, Hendaiako "Mairia" - Alemanian hila den hura- [...] hura izigarri persona ona izan zela jende hoientzat. Eman zioten eskola haundiyan lehorpea Hendaiako eskolan, eta zopa're bai, haureri eta haundieri're bai pentsatzen dut. Eta han, beraz, barku horieiri begira nigarra begiyan egotu nintzen - zeren hamaika urte - banuen halere kontzientzia ze mixeriya zen, eta, bon, ahantziya...

4.2. Hegoaldeko Gerra Zibileko errefuxiatuak Hendaian

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-001/026
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:49:44. **Bukatu:** 00:52:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Hendaiarrek eta Hendaian lehendik ziren hegoaldekoek ere jendea hartu omen zuten haien etxeetan. Extefanaren etxean bi gazte hartu zituzten. Pilip eta Koxe. Koxe, Behobiakoa zen, errepublikarra, eta gogoan du Extefanak haren amorrua, eta nola egiten zien oihu "Viva la república!" pasatzen ziren hegazkinei.

Transkripzioa

-Gure burua. Eta etorri nitzen zaldi karro bat, ahizpa begira nuen eskolaat igotzeko, ta erran ninduen kolera "zer aritu haiz oai arte? Eskolako tenore pasatua da!", "Ba, eskolako tenorea, zer inporta du eskolak horko mixeriya ikusita!" erran nion ahizpari. Ta ba..."halere, halere, ta orai berantegiya da" ta bon, gaur ez naiz gain eskolaat, ta ez dut gogorik ere eskola gateko". Eta gero bon, hola, español anitz bazien, familiak bazien hiru-lau piezetan, hir- lau piezetan, igual hamabortz presona? Zeren hemen zien españolak hango jendiak errezibitu zituzten eta beren etxean hartu. Eta hola. Gero, gaztiak, handik ihes iñak, Francori ihes egindako gaztiak kanpain guzietan

bazien. "Jan truk" egoten zien, lana egiten zuten eta gero...
 - Mutil gisa? Mutil bezala egoten ziren?
 - Mutil bezala, bezala, mais "jan truk" erraten zen orduan, janen alde. Jan ta lo bazuten lehorpean. Eta, beraz, gure etxian egotu zien bi, Pilippe eta Joxe, bi. Bat republikanua zen, mais haren...haren errabia... Uu! Bertzia... eztiyagua zen. Mais bertzia errepublikanua zen, Joxe hori, ta hura ikusten zuelaik "aireplan" bat edo avion bat zeruan isatzen zen ahalik eta gorena! Ta "¡viva la república!" oihu iteko. Eta guk irri egiten ginuen eta amak erraten gintuen "ez zazuela irriik in! Ez zazuela irriik in e! Hori koleran da e! Koleran da, ez zazuela irriik egin". Eta holaxe. Lehenoz zortzi bagiñen etxean ta gero hamar bagiñen. Denentzat bazen heltzekariya.
 - Eta hori beraz errefuxiatuak ziren.
 -Ba, ba.
 -Zerbait irriskatzen zuten hemen? Hemengo gendarmek edo harrapatu edo...?
 -Ez, ez.

4.3. Gurasoek hiru gerra bizi izan zituzten

- **Hizlaria(k)**: Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: HEN-001/028
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:54:35. **Bukatu**: 00:56:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Politika » Gerra zibila (1936-1939)
 Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- **Laburpena**: Extefanaren gurasoen belaunaldikoez hiru gerra ezagutu zituzten: 1914koa izan zen lehena. Lehen Mundu Gerra hark utzi zuen haiengan arrastorik handiena. 1918an bukatu zen hura, eta Extefanaren gurasoak 1929an itzuli ziren Iparraldera. Handik zazpi urtera lehertu zen hegoaldean Gerla Zibila, eta hura bukatu zenean, hain justu, hasi zen Bigarren Mundu Gerra, 1939an.

Transkripzioa

- Emazteki hura... anitzetan mintzatu gira elkarrekin, zeren orroitzen baitzen nitaz, [...] eta kontatzen gintuen istori horiek eta dena, eta emazteki hori hil zen. Gizon hori bizi da laurogeita hamabi urte baitu, bakarrik bizi da, Petriko haitan, Biriatur. Eta biriatuar bati galdetu diot Jean Martin nola zen, ta "bai, ongi da, ongi da. Haurrak gaten zaizkio artian ikusteak, eta ongi da". Biriatuat arribatu baiño lehen ezkerreta, panttan den laborari etxe batian da. Eta hola, gero bazien bertziak ere hemen ezkondu zienak hemengo frantsesekin, hemengo jendiakin, eta hola.
 - Eta hortik fite ere II. Mundu Gerla ezagutu zenuten...
 -Ba, ba.
 - Okupazioa eta holako istorietaz oroitzen zira?
 - Ba, ba. Aita ta amak ezagutu dituzte hiru... hori amentzat izan zen... izigarri zen... hiru gerla ezagutu zituzten. Lehenik hamalaukoa bera ongi ukitua baitzien, eta gero han hegoaldean bazituen amak laguntzaile anitz, zeren galdu zuen anai bakarra izan ginduena gripe espaiñolakin galdu zuen. Eta penarekin eta gero frontera hemen eta aita desertoria eta ez zen nahi bezala etortzen ahal e! Eta bazituen lagun onak amak hegoaldean, amak eta aitak ere ba. Eta gero, beraz... hori ezagutu zuten, hortan zien

gehienak markatuak izan e, hamalaukuak. Eta gero... espaiñiakua etorri zen eta hemezortzian finitu. Ta hogeita bederatzian sartu giñen gu hegoaldetik hunat eta hogeita hamaseian, berritz, hango gerla. Eta gero berritz berrogeian bertzia. Ta, bon...

4.4. Alemanak Hendaian sartu eta oilarra prestatzeko eskatu zieten

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-001/030
- **Iraupena:** 0:04:51. **Hasi:** 00:57:44. **Bukatu:** 01:02:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian
- **Laburpena:** Hendaiara ekaineko egun batez sartu ziren alemanak. Belarretan ari ziren Extefana, ahizpak eta aita. Ama etxean bakarrik zela, beraz, soldadu aleman bat agertu zitzaion atarian. Oilar bat ikusi zuela eta hura jan nahi zuela esan zion. Denbora beharko zuela ulertarazi zion amak nola hala, eta soldaduak beranduago itzuliko zela erantzun zion. Belarretatik itzuli zirenean aitak oilarra harrapatu eta amak oilarra prestatu zuen. Itzuli zen soldadua; sukaldeko mahaian erdia jan, eta beste erdia eraman zuen. Ordaindu omen zuen, behintzat.

Transkripzioa

- Ta nahi nuke gan...Berrogeieko gerla hori ez zen gauza errexa e! Ez zen gauza errexa. Eta amak ez zuen....ez dakit zertarako...amak hain sofritu baitzuen...aitak eba, mais...ama emazti....emaztia izanez eta ba...erraten zuen "horiek hemen, (alemanez) hemen ikusi behar gintuela horiek!" Zeren bera....haurdun gelditu zen gizona lehen lineat gan zelaik, eta bistan da sofritu zuela bai. Eta, beraz, sekulan gogoratzen dut nola Hendaian sartu ziren... gero ez ginduen berri anitz ere, ez baitzen radiyorik. Bazien radiyuak, guk ez ginduen, ez ginduen radiyoik. Eta toki ainitzetan ez zen. Eta....baiñan orroitzen naiz Hendaiat sartu zien eguna. Junia zen, Junia zen hogeita seia edo zerbait hola. Belarretan ari zen denbora...ari ginen, denbora eder bat zen! Denbora bero bat! Eta aita ta ahizpa guziak belarrak idortzen, eskuz egiten baitzuen denak e, arrastelakin etaa dena eskuz iten zien! Eta ama bakarrik, eta etorri zitzaion soldaru Aleman bat. Ta deskribatzen zuen amak "gizon eder bat, mutil eder bat!" erraten zuen. Eta egiya da, lehenbiziko Alemanak izigarri mutil ederrak zien. Gizon ederrak zien. Eta "etorri da eta ikusi du oilarra ate aintzinian, eta erran nau hura behar duela jan, hura nahi duela hiltzia eta harek jateko". Eta ama, pixka bat izitua, eta erran zion, esplikatua zion -pixka bat bazakin frantsesa, aleman horrek, amak bat'e ez-. Amak erran zion baina tenoria orena erakutsiz "mais, oilarrak behar du denbora haundiya prestatzeko. Behar du egosi lehenbizi. Eta suan in ziola jestua lehenbixi egosi ta gero, lehenik hats eman, gero, hil ta lumatu, ta gero egosi ta prestatu". Eta erran zion, bon, sei t'erdietan etorriko zela, sei t'erdietan etorriko zela. Bon, gero ama orduko pixka bat...haur anitz izana eta unatua eta ez zuen hain haixe kurritzen. Eta egon zen gui beira kraka edeiteat, gaten giñen beti etxea lau t'erdiak-bortzak artian. Eta kraka edeiteat etxeat giñelaik, ama hasi zen aitari: "Ganix! Behar duzu oilar hori hats eman!" "Oilarra hats eman? Zertako? Oin oilar hori hats eman? Hori errexa da hori hats ematen hori!". Ta hola kanpuan, ta "ba, ba, aleman bat, gizon eder bat etorri zait, eta

etortzekoa da sei t'erdietan jateat". Ta "[...] lan ederra!" eta "Ale, nexkak, zatozte nekin. Hats emango diogu oillar horri". Hats eman ginduen, aitak hil zuen, ama lumatzen hasi zen, gu krakada in ginduen berriz landa gateko, eta prestatu zuen... prestatu zion paderian. Prestatu zion....freitu, freitu zuen! Aski zula jatia zen bezala! Sei t'erditan etorri zen, etorri zen mais... desarmatua, ez zuen pistolik...ez omen zuen. Nik ez nuen ikusi. Gu berriz landeta gan ginen, eta amak erran zion, hori orroitzen naiz: " Oh Ganis, utz nezazu! Gazteena bederen utz nezazu etxian! Izitzen naiz pixka bat bakarrik egoittia". Eta ahizpa gazteena igotu zen amakin, eta ahizpak...ahizpa bizi da eta ahizpa gazteena eta erraten nau bai "zerik gabe etorri zen, gerriko zinturik gabe". Zinturo largo bat bazuten hemen pistolakin...

4.5. Bi ahizpak behizain zebiltzala haien ondora obus bat erori zen

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-001/033
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 01:04:49. **Bukatu:** 01:08:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian
- **Laburpena:** Soldadu militarrek ariketa militarrek egiten zituzten Hendaian zehar. Laborariak abisatzen zituzten, kanpora ez ateratzeko, baina egoera arriskutsuak sortzen ziren hala ere. Behin, udaberrian, aitak aziendak bazkatzera ateratzeko eskatu zien bi ahizpa gazteenei, beheko lurretan gelditzeko aginduz. Kanoi hotsak entzuten ziren, ordea, eta nondik zetozen jakin nahi eta kaskora igo zirenean ahizpak, lehertu ez zen obus bat erori zen haiengandik hamar metrora. Eta bi ahizpei zer bururatuko eta obusa lurretik atera eta etxera eramatea!

Transkripzioa

- Bateki jo batea ta jo bertzea! Zaldiake'e pixka bat harrotuak eta ba...ez zen errexa e!
- Ez.
- Ez zen...egun batez... auzoko emazteki bat, Aspotxipiko Josepa, ari zen bokata jotzen, bokata jotzen iturrian, gure etxe onduan zen iturri hori. Hiru auzontzat zen: Aspotx, Aspotxipi ta Auzoberri. Eta botatu zuten gatza, eta berak maskak in zien baiñan han zien jendiak usaiña aitzen zuten, eta Aspttipiko ematze hori gan zen etxeat, denak utzi eta gan zen etxeat. Ta pentsatzen dut, ez dakit, ez dakit lanjerosa zen e! Mais bazien holako...holako lanjerak izan zien bertze behin...baziuzten "exercisak" iteko baiñan jendia kanpaindarra adbertitua zen, abixatua zen landetan kanpuan ez egoteko, eta azendarik'e ez atezateko. Eta primabera zen, nun larreko ta puntta frekkua billatua zen, eta nere aitan kezka beti zen aziendak ongi bazkatzia esnia... esnian dirua biltzeko eta dena. Bon, eta, bon, erran gintuen bi ahizpa gazteeneri ba "bi behi hauk ateako nituzke baiña iratze lekuan - iratze lekua horko malda bat, ta hare xokua bazen, malda bat, xoko bat bazen- eta xoko xoko ere [...] ta ez zien sartuko goitti e!" eta, ez... ari ziren kanoiak "pin! pon! pin! pon!" ari zien kanoiak, alde batetik eta bertetik eta, gu "nundik die kanoi horiek?" gu bi ahizpak eta, bon, ba behar dugu ikusi eta behiak beheko xokuan eman genituen eta kaxkoat gan ginen eta aitzen ziztu bat: "pun!" ta "zzzzz" in zuen. Elkarreri begira

egotu ginen, “zer zen soiñu hori?” “hemen zen?” eta “ba, hemen zen”. Obusa, obusa zen. Lurrian sartua gure hamar metretan edo hola. Lekua falta zen e, ez ginduen... ez zen bere xokoan gelditu're ez e! Nahi ginduen ikusi nondik ari zien kanoi horiek, zenbat zien. Teilatu baitan, bazien abadian, kornisan ere ba, ta nahi gintun ikusi nundik heldu zien tiro horiek. Eta ateatu gintuen -makilla baginuen behiak zaintzeko makillak- ta makillakin atea ginuen obus hori...

4.6. Alemaniako soldaduekin ibilitako neskek jasotako zigorra

- **Hizlaria(k):** Urkia Berra, Eustaquia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-004/038
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:08:37. **Bukatu:** 01:09:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- **Laburpena:** Neska batzuk Alemaniako soldaduekin ibili ziren Hendaian egon ziren bitartean. Alemanak joan zirenean, ilea moztu zieten denen aurrean. Emakume haiek oso gaizki ikusiak ziren.

Transkripzioa

- Bai, bai, bai, izandu die, e, gauz batzuk, bai, bai, bai.
- Eta aleman soldaduekin ibili neskak?
- A, bai. Ibili die, eta gero gan zirenian alemanak, ilea denak, bai, “à ras”, denak.
- Hori, oroitzen zira hortaz?
- Bai, nik ikusi dittut. Bai, bai.
- Mozten edo gero?
- “No, no”. Mozten ez, biñan gero bai.
- Ez zituzten denen aitzinean moztu ileak?
- Bai, plazan.
- A, ba, e?
- Bai, bai, bai, bai, bai.
- Ze gogorra!
- Bai, bai.
- Ze baziren bi ahizpa, Orion bizi zirenak, bazuten zera bat, “une ferme là-bas”, ta gero baziren... bai, bestiak ere baziren bai, bai, bai. A, ba, zortzi bat egin zuten, e?!
- A, bai, e?!
- Bai, bai, bai, bai. Eman zuten fularra hola, badakizu? Etxera gateko. “Mais”, bai, bai, denak.
- Ta horiek gaizki ikusiak...
- A, bai, “dis-donc, ouh là”... Alemanakin fan, "c'est la..."... Bai, bai, bai.
- Buf! Eta...
- Eta beste batek izandu zuen... haurra izandu zuen alemanarekin ere bai.
- A bai?
- Bai, bai. Gero haurra hil zen. Hil zen haurra. “Mais” ez ziren ongi ikusiak, e?! Ez, ez, ez, ez. "Comme ça, voilà!"

4.7. II. Mundu Gerrako gosea eta beldurra

- **Hizlaria(k):** Urkia Berra, Eustaquia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-004/039
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:09:58. **Bukatu:** 01:11:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- **Laburpena:** Gerra garaian jateko gutxi zuten. Tiketei esker erosi ahal izaten zuten ogia. Etxeetan leihoak itxita eta argia itzalita edukitzen zuten beldurragatik.

Transkripzioa

- "Mais" ez ziren ongi ikusiak, eh?! Ez, ez, ez, ez. "Comme ça, voilà!"
- Ta zuek, jatekoa ta, guti zinuten orduan, ez?
- Bai, bai, bai, bai.
- Ta zenbat denbora?
- Bai, tiketekin! Bazegoen karta bat, "alors J-1, J-2", ta zera... ta hainbestek hainbeste ogi, hainbeste kafe, hainbeste... aaaa! Dena zera egina zen, e? Bai, bai.
- Razionatua.
- Bai, bai. Bai. Baina ni, guk e... xantza zun zertako bazun osaba bat Landaseten, ta Landaseten ematen zioten tiketia. Eta hola bidaltzen dute guri ta guk ogia erosten zeuen horrekin. "Boh, tu parles" holako, zera, "boulangerie" a gaten gen bila ta bidean jaten'zu. Bai, bai, bai, bai. Ze gutxi ematen zuten, gutxi, gutxi, gutxi.
- Eta atsetan behar ziren denak hetsiak, leihoak, argiak itzaliak, edo...
- Bai, bai, bai, bai, bai. Ba, guk eiten zizun, denak itxi, e?! Beldurra zegon. "Là... Tu sais". Bai, bai, bai.
- Inkas.
- Bai, bai, bai, bai, bai.
- "Non, non..." Gero, "bon", zeregiten da, jartzen da, bizi horeri, "mais" ez zen, ez zen drolea ez, "non, non, non, non", ez zen drolea, "enfin... bon!".

4.8. Gestapok desagerrarazitako hendaierak

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-006/001
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian
- **Laburpena:** Kolaborazio eta erresistentzia garaian, Gestapokoak elkartu ziren Hendaiaiko herriko etxeke kontseiluan eta herriko alkatea eta bere idazkaria salatuak izan ziren. Santa Ana elizako apaiza ere eraman zuten, eta berarekin apaiz-mutil aritzen zen mutiko bat eta herriko beste gazte bat ere. Ez zuten haien berririk izan harrez gero.

Transkripzioa

- Gero, elkarren artean ta... ze giro zen? Bazen kolaborazionea...?
- Bai.

- Erresistentzia...?

- Bai, bai, bai.

- Giro goxoa?

- Bai. Bai, bon, giro goxoa bai... ez zen xiñale e! Bakarrik behar zen mesfidatu eta... Ez dut aspaldi jakindua nola Hendaiako herriko etxeko kontseiluan nola izan zen bildua. Gestapoak. Eta plaiako apeza're bai. Eta norbaitek, herriko etxian berian lanian ari zen batek —irakurtu berria dut gauz hori e— izenik ez da, nik pentsatzen dut... baitakit nor ta nor ibiltzen ziren alemanentzat pixkat... heiek pixkat... defendituz. Eta, bon, Hendaiako mairea, hain gizon ona, eta bere kontseiluakin, bere sekretaria ta kontseiluko gizonekin... denuntziatuak izan ziren ze... Eta gero, bi gazte, hamalau eta hamabortz urtekuak, bi gazte, bat badakit apez mutil ibiltzen zela hoteleko seme hori, Bergeré, plaiako apezakin, Santa Anako apezakin. Ta Santa Anako apeza arrestatu zuten haurreri katexima iten ari zelaik. Gestapo etorri, jakin behar zen e hura han zela e, elizan! Eta katexima iten ari zelaik... apez xarmanta zen e, gaztientzat eta... izigarre gizon ona zen. Eta Gestapoak hartu zuten bi besotaik, omen—han kateximan zen mutiko batek esplikatu... erran nindun istoria— eta gibelat, eliza gibelat atetik atetzeko prest zelaik, gibelat begiratu zuen haurreri, eta erran omen zioten —ez zen euskalduna—: "Mes enfants, vous me reverrez plus jamais". Ta egia da, ez zen etorri. Gero harekin ibiltzen zen apez mutil bat, Bergeré, hoteleko semia zen, eta gero coiffeur baten semia, hamalau urte, hura ere... bien berririk ez... ez zien etorri gibelat.

4.9. Hitler Hendaian izan zenekoa

- **Hizlaria(k)**: Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: HEN-006/004
- **Iraupena**: 0:05:37. **Hasi**: 00:04:45. **Bukatu**: 00:10:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Extefanaren bi ahizpa esnea saltzera joanak ziren herrira Hitler etorri zen egunean. Hegazkinak ikusi zituzten hara eta hona. Bidearen bi aldeetan soldadu alemanak, ehun metrero. Herriko kaleak itxi zituzten eta soldaduak ikus zitezkeen teilatuetan. Esnea banatu eta arazorik gabe itzuli omen ziren bi neska gazteak etxera. Gerora jakin zuten Hitlerrek haien etxetik metro gutxira egin zuela lo.

Transkripzioa

- Eta gero, gerlarekin segitzeko, eta finitzeko, ez dakit oroitzen ziren Hittler izana dala hemen Hendaian. Egun hortaz oroitzen zira?

- A bai. A bai. Hitler... egun... aparta bat zen. Bon, guk hemen... gue kanpain xokoan, nun ez zian exercisetan-edo hola ari, ez ginen mais... ohartu giñen aireplanak edo abionak ibilki ziela harat ta hunat ta hola. Eta bi ahizpa, bat haundiya eta bertzea ttikiya, biek han zien esniakin. Eta hemen bidia goiti abiatu zielaik, ez dakit ehun metra guzitan bazien bi bidien aldetaik alemanak, soldaruak, armatuak, tiratzeko prest. Eta gero karrikaat gan zielaik, denak zerratuak, alemanak teilatu gaiñean, soldaruak, eta bon, been esniak utzi zituzten atiak irekitzen ahal izatu zituzten, etxetan sartzeko. Karrikan ez omen zen nihor ageri. Ahizpa

zaharrenak erran zion gazteari omen “Jo, etorri gaitun esniakin, mais gibelat nola... nola gain gaitun gibelat?!”. Eta ahizpa ttikiyak ez zion deusik erran “Ez dakit, ez dakit”. Eta “Hemen zer pasatzen da, zer pasatzen da?”. Eta etxeat etorri zien problemarik gabe. Utzi zituzten pasatzen. Been esnia partitu ta ogiya hartu zuten, zeen memento hartan quartier guziko ogiya guk ekartzen ginduen e, zera... nola erran... zerbitzu iteko, zeen ez baitzien denak karrikaa gaten zaldi karruakin. Igual bertze auzoari ematen zioten esnia. Eta, bon, ogiya... ogiya hartu zuten, ogiya [boulangeria]... Ta denak ixil-ixillak, denak. Eta etxeat etorri ta hori aitu nuen erraten: “O aita! Ez dakit zer pasatzen den! Gaur bada zerbeit pasatzen dena, ez da nihor karrikan! Eta abionak, aireplanak, beti badie gainian, zerian, zeru zolan, eta, zerbaite pasatzen da”. Eta ez zakiela, “Ba, ba ohartu naiz aireplan anitz zela gaur”. Eta gero aitu gintuen Hitler zela, Hendaiat etorria Francorekin elkarrizketa eiteat. Mais in zuten, mais, gareako inguruko apartamendu guziak... familia batek erran nau, familiako jende batek erran nau, hustu zituzten e gareak inguruko zerak e, igorri zituzten handik instant batentzat. Eta bazuten beti muttiko bat familia hartan, muttiko bat eri, eta hango zerak, anaia haundiyak, edo aitak edo ez dakit nork erran zion “Ez ga muitzen ahal, badugu muttiko bat eri, ta ez da muitzen ahal hori”. Mais, soldaru bat han egotu zen heiek zaintzen e! Eta, gero, bon, elkarrizketa hori egin zutela —ez nahi bezala noski, nik gero irakurtu dutanez— eta gibelakuan Hitlerrek hemendik bi kilometretan da tunel hori, Hendaia ta Urruñako mugan den tunel hori, horren azpian pasa zuen gaua, eguna ta gaua, Hitlerrek. A bai, zeen beldur zen jakitia gero nor zen jendiak baitzien denbora berian, lanian ari zien jendiak sabotageak egiteko ta dena e, eta gero [...] bazien, mais orduan ez dakit bazien [...] mais baizen jendiak lanian ari zienak, halere. Eta resistentzia egiten duten hoiak eta denak. Eta tunel hortan pasatua zuen gaua, beldurrez sabotegeren bat egiteko. Tunel hori beti zaindua izan da e! Beti-beti e! Eta horko zaintzaileak zuten beren zera... beren etxia, etxe eder bat, [...] Bordoxarreko biria hori Iratzeko borda. Han... han bizi ziren. Ta handik gardiya hartzen zuten hor. Eta horran, beraz, Hitlerrek gure etxe ondo-onduan pasa zuen gaua. Ongi zaindua.

4.10. Hendaiar neska gazte batek austriar soldadu bati desertatzen lagundu zion

- **Hizlaria(k)**: Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: HEN-006/007
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:13:25. **Bukatu**: 00:15:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Austriako eta Poloniako soldaduei antzematen omen zitzaien ez zirela alemaniarak, aurpegiko tristuragatik. Haietako batek hegoaldera pasatzeko laguntza eskatu zion Extefanaren lagun bati. Hark arropak beltzez tintatu zizkion eta hegoaldera pasatzen lagundu zion. Neska hura salatu egin zuten, eta alemanek galdezkatua izan zen, baina ez zioten zigorrik ezarri.

Transkripzioa

Eta gero zenbat honako. Gero bazien hoeikin “autrichienoa”k eta... ezaun zien heiek´e, been tristuraatik ezaun zien, “autrichienoa”k eta polonesak. Eta hemen Maddi “Aspotxipikua” behizain ibiltzen zen hor golfo hoitan. Eta bazen bat, soldaru bat, gaten zitzaiona solas egiteat, eta erran zion “autrichienoa” zela, eta nahi zuela hegoaldera pasatu. Eta Haizabian egoten zen, Haizabiako etxe haundi bat hor, hori´re hartua zen alemanek. Eta, bon, Maddi, Maddi zuen izena nexka horrek, akzidentez hila da oai. Eta horrek erran zion “Bon, mais, nik ez dut arropik zuri emateko, ez dut arropik zuri emateko —nahi zuen bestitu bertzela—. Bon, aski nauzu ekartzia arropak, tintatuko zaizkizut beltzez”. Beltzez tintatu ziozkan eta arrimatu zion bee arropa, ta igorri zuen bertzalde, lagundu´re bai beharba. Ta, mais, norbaitek salatu zuen. Eta, Hendaian, Villa Marie den tokian zen komandant hura, eta horra deitu zuten. Bainan orduan maisoritatia hogeitabat urtetan zen! Hemezortzi zituen. Ez zituen arras hemezortzi urte, hamasei-hamazazpi... Eta ez zioten... galdezkatu zuten, ta harek... kopeta handiko neska zen! Eta ez, ez, harek ez zuela deusik... ez zakila fitsik! Eta, beraz, libro utzi zuten... ez zuen deusik izan.

4.11. Preso alemaniarrari lagundu zion aitak

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-006/010
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:20:25. **Bukatu:** 00:22:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Extefanaren aitak janaria eman zion preso aleman bati, etsaia bazen ere, gizona zelako. Bertako jendearen eta Alemaniakoen arteko harremana. Gereziekin gertatu zitzaien pasadizoa.

Transkripzioa

- Eta, gero, bon, badie... badie gero alemanak preso iñak bazien, hemen Senotegian egotu zen... bazen aleman presonerengana, heiek´e sofritu zuten! Etsaiak zien, baiña gizonak zien, halere. Eta aitak erran gintuen behin “Oh, pena in nau, aski sofritu dut [nehorrik] hoi en kontra gerla iten, bakarrik, hori´re aita familiako bat da doike, ez da gaztia, eta etorri da oihanez oihan eskapatua bere kanpamendutik, eta artua galdetu nau, artoburu bat edo bi”. Eta aitak eman zion bi artoburu edo ez dakit ze. Artoa jaten zuten, e! Eta eman zion ogi koskor haundi bat, eta berriz´e oihanian sartu, eta geo oihanetik ateatzen ahal zen bideat eta bideat [errex] sartu ta be kanat gan. Eta “Pena eman nau, pena eman nau, hori ere jendia da”. Eta horra, holako gauzak izaten zian.

- Ez zen, hala ere, halako gerraik... alemanen...?

- Ez, ez. Ez, ez. Ez dut uste. Ez dut uste. Guk... ez dakit. Bon, batzuetan aitzen giñen, aitzen giñen, bai. Behin belarretan aitu giñen, belarrak biratzen aitu giñen hiru ahizpa. Ta gereziak bagenituen landan. Ta ahizpa batek, bertze biak elkarrekin pixkat borrokan edo pixkat jostatzeko ta

elkarren kontra pusatu giñen, mais abila zen, nahi zuen gerezian toki hobena atxeman, lehenik isatu gerezi gainerat. Eta gerezi gaiñeat, bazen panttoka bat gaiñean eta handik lasterka ta hartu zuen adar bat isatzeko, ta aleman bat, soldaru aleman batek denak, atxematen ahal zien guziyak, bilduak zituen! Ta janak! “Oh, urdi alena! Denak jan [dinote]”. Eta holako... holako herra bai eta bai eta ez, bon...

4.12. Gerla bizi duen jendearen bizitza gogorra

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-006/011
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:22:58. **Bukatu:** 00:25:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gerla zela eta, jendea beharturik egoten zen zenbait lan egitera edo ihes egitera. Mediku batek Extefanaren ezkongaiari lagundu zion, Alemaniara borrokara bidalia izan ez zedin.

Transkripzioa

- Pentsatzen dut halere gerla egin zuten jende hoiek, nere aita zena bezala, eta anitz sofritu duten jende hoiek bazutela, bainan ez zuten... ez zuten zer txarrik e. Aita gan izatu da, mais bortxatua zen gatia, idiya ta arkerakin materialak garraiatzeat. TODT, bazien, gero bazien, gaztiak, nere gizongaia, ez giñen ezkonduak, deia bazuen ZTO, Alemaniat gateko.
- Lanean hartzera.
- Alemaniat gateko. Eta ainiz bazien, e! Ta batzuk pasa zien bertzalde, hegoaldeat. Eta erran ninduen Oignon gizongaiak, erran ninduen ba “Bi egunen buruan behar dut /beot/ partitu” “Behar duzu /beozu/ partitu, baiñan bortxatua zira partitzeat, bortxatua zira partitzeat”, “Ba, ba, ba papera hartu dut”. Mais ez ninduen erran —sekretua baitzen— ta ez ninduen erran ta ongi in zuen. Bee nausiyak, Monsieur Difo-k, erran zion: “Nik badut midiku bat... cousine bat midikua ta entsiatuko naiz harrerri paper faltsuak, radio faltsuak iñaztea”. Zeen bazuten midikuan bixita bat iteko partitu baiño lehen, bortxatuak zien. Eta pasa zizion bularretako radiyo bat, faltsua. Ta harekin presentatu zen eta ez zuten igorri. Ta aritu zen lanian, hemen Hendaiako garean aitu zen TODT, hoiek, TODT hoiek zian adin haundiyokuak, adin gehiyo zuten hoiek. Mais bazien berrogeita hamar urtetik goiti zien gizonak, familiako kargik ez zutenak, mais gure aita're bai e! Aita're... gure aita're...

4.13. Gerla garaiko salatariak

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-006/012
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:25:10. **Bukatu:** 00:27:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena:** Denborarekin jakin zen nor zen salataria eta nor ez. Salatariei lekukotasuna egitea, aldiz, zaila zen, ez zen ia inor ausartzen.

Transkripzioa

- Ta hortako... hortako gizon bat bazen [...] zen, hendaiarra, e! Hura kolaboratorra zen. Eta bizikletakin ibiltzen zen. Eta etorri zen gue etxeat ta denbora ederra zen ta belarrak bazituen aitak idortzeko egun hartan. Eta amari erran zion: “Ba, behar du holako tenoretako, holako tokitan izan iriya ta arkerakin” eta amak erran zion “Baiño gaur ez du posibleik eotia” “Badakizu norekin duen afera, e!” Badakizu, bazien holakoak. Esan zuek harek... bon, bon, bon. Erraten ahal zuen: “Errain dut ez dutela atxeman nihor etxean”, “Ez dut mandaturik iten ahal izan”. Posible zuen antolatzia, mais bazien holakoak, salatariak’e bazien, bai.

- Hori bazinakiten gerra denboran nor zen salatari edo gero?

- Gutti edo gehio. Gutti edo gehio.

- Ta gero jakin duzue zein bai, zein ez?

- Bai, bai. Eta aipatzen duten gizon hori neri... ez da hemengoa gizon hori, hila da hasteko. Andrea bizi du. Norteko gizon bat da, eta ez zen hemen e orduan, geroztik etorriya da bee erretretan. Eta harek erran ninduen... nik erran nion “bazien salatariak, hola ta hola”, ta mintzatu giñen gizon hortaz, ta harek erran ninduen —gauza anitz jakiten zuen gizon horrek eta erran ninduen—: “Ba, baiñan deitua izan da tribunaleat, baiñan lekukoak behar zituen eta ez da nihor izan gauza lekukotasuna egiteko”. Gauza zaila zen. Horra.

4.14. Minak inguruko lurretan

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-006/014
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:30:18. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Minaz inguraturik zegoen, ez zen inguruko bidexka batetik pasatzerik ere. Zenbait bordariren lurak minaz beterik zeuden eta istripuak ere gertatu ziren hauen ondorioz.

Transkripzioa

- Gero minak.

- A, doike.

- Minak. Hau dena minatuak zien.

- Bazterrak hemen?

- Ba.

- Zer... belar...

- Landak.

- Landak.

- Landak minatuak zien. Agerreko ontasuna, hemen Agerreko ontasunian gee gu’e, eta gero behereko aldia dena minatua zen. Ez zitaken pasa... Bide xahar bat bada hor kornixa atxematen duena basierako bidetik eta

beheat. Hor... hori barratua zen. Pasatu behar ginduen bide komuna batetik, zaldi karruakin ere eta kornisaat ateratu. Eta, beraz, gero jende hoiek, kanpaindar hoiek, igorriyak ziren apartamenduta. Bazien Ganikotxenian, bi parte bazien Agerrian bi... bi ontasun ederrak, e! Ongi... ongi bizi... bai, nagusi onak baldin baziuzten been bizimoldea atezteko lurra aski bazituzten bik. Eta bat, bordari bat, gan zen Haizabeko etxe eder bat bada hor kornixaat arribatzian ezker, midiku batek eresia da. Hor egotu zen bat. Eta bertzia Ganikotxenian, apartamendu librua bazen. Eta gero aziendak auzuek hartu ziuzten. Gue etxian egotu zien bi behi, zeen parte batekua, aitan familiatik zen eta hola. Zera in zen. Gero... Kaskonienian... gero bazien maleurrak, gero Kaskonieneko semia... Kaskonienia itsasoari buruz da hor e, ta hor minatuak zien, mais berak etxian egotu zien. Landak minatuak zien, arbiya bazuten, eta, Ximun, seme zaharrena, nahi zuen arbi billat ateatu, kontu iñen zuela. Baiña ustegabian ukitu zuen mina, saltatu zen; bi haurren aita, han berian saltatu zen. Eta gero hemen Donkosenian ere... Donkosenian... Dorrondegi, Sendotegi... hoiek denak landa minatuak zien eta blokoz haundiak bazien iñak. Donkosenian behia, behia saltatu zen, behia disparatu zen eta...

4.15. Soldaduei esnea ematen

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-006/016
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:33:45. **Bukatu:** 00:34:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian
- **Laburpena:** Txanpon batzuen truke esnea ematen zieten beste aldeko soldaduei etxean.

Transkripzioa

Mais bazien hortik gue etxeat etortzen zien... bazien erraten zaitutena... ez zen zonbaiteri buruz, ez zen herriak zer iten ahal, sentitzen zinduen heiek ere sofritzen zutela. Bazien bi, bi gizon eder, aats anitzetan etortzen zien, esnia edateat, katilu bat esne. Eta amak erraten zioten "ba jar zaizte" eta ematen zioten katilo bat esne, eta hura edan ta gaten zien. Pagatzen zuten eta... horra. Ongi pasatzen zen, komunzki ungi pasatzen zen, bai.

4.16. Aita nahi gabe erresistentzian

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-006/017
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:34:26. **Bukatu:** 00:37:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Jakin gabe laguntzen zion aitak erresistentziari.

Transkripzioa

Gero, berex, resistantzi hori e. Ba. Mais, hor ere... hor ere gue aitak in du eskapada ederra, e! Biltzen al zuten bate faltik gabe. Bizi zen etxea Hendaiaiko mairena zen, [de] Lannepouquet. Eta izigarri gizon ona zen bordarientzat. Errenta ttiki batekin pagatzen zuen urtia. Eta ez dakit aitak bazakien, ez dut uste bazakien resistantziya bazela're, eta egiten zuela're. Badakizu, laborariak lana iten zuen bere etxian, eta bee difikultatiakin eta dena. Bon. Eta illunarretan etortzen zen gizon batekin, De l'Etoile deitzen zen gizon hura, [...] zuen harek. Harek autoan ekartzen zuen. Berak ez zuen autorik. Bazuen, beharbada, mais ez zen autuan etortzen. Eta gue etxean gelditzen zen eta erraten gintuen "Aita hor da?" ta "Ba, behia jaisten ai da". Ta bon, guk erraten giñun: "Aita, nausiya hemen da". Ta aita, badakizu, lehen bezala, nausi bateri errespetuz, bee kapelua kentzen zion eta "jaun mera" eta... Ez zakien eskuaraz. Eta erraten zion: "Tu vas m'accompagner chez le général Brutinel". "Général Brutinel" hori zen Bordaberriko nausiya, kanadiena zen, hura ez zuten ukitzen ahal, e! Harek ez zuen... kanadiena zen. Eta, mais, han iten zuten billera, resistantziyakuak, dudaik'e, dudaik gabe gero irakurtu dut nik e! Kanadien horrek ere resistantziya egiten zuela. Eta erraten zion "Euh... il faut que tu m'accompagnes chez le général Brutinel, mais pas par la route eh, par les sentiers". Ta bidexkaz, larrez erematen zuen aitak eta horra. Eta gero norbait... norbaitek laguntzen zuen, doike. Eta gero... gero mera arrastatu zutelaik, gero denborakin ikusi gintuen zer egiten zuten bilkura hortan, ze. Mais, gelditu... hortako jende anitzek zerbitzu handiya egin dute, been irriskuakin jakin gabe, bate jakin gabe. Guk obusa bezala!

4.17. Hendaiairrak Dachau-ko kontzentrazio-esparruan

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-006/018
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:37:18. **Bukatu:** 00:39:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena:** Beraiek ez zuten kontzentrazio-esparruen berri. Hendaiair batzuk Dachauko kontzentrazio-esparrura eramane zituzten, tartean Lannepouquet alkatea. Bertan egon zen aita Armand apezak, hango bizipenak kontatu omen zituen gerora.

Transkripzioa

- Eta bazinakiten ze pasatzen zen? Dachau bezalakoak-eta bazirela?
- Ez. Ez aifitiz, gero. Gero, bai, gero in zen hemen "aux Variétés". Bazen bertze apez bat, père Armand. Hura xahartua zen, hura 're gelditua zen e! Herriko etxean egiten zuen lana ta hura're gelditua zen. Eta hura're Dachau hila da. Zera're bai, plaiako apezka, Santa Anako apezka. Eta gero, père Armand etorri zen gibelat eta harek in zuen historiya, hango historiya. Eta... "au théâtre des Variétés". Eta erran zuen... Lannepouquet gorriya zen e! Ez zen komunista, mais gorriya. Orduan gorriya ta txuriya zien. Gorriya zen, gorriyan fama zuen. Eta Lannepouquet-en, Hendaiaiko meren, heriotzea kontatu zuen. Eta ainitzetan otoitzak iten zituela eta otoitz iten zuela, bere alaba ttikiya zelarik, iten zion otoitza egiten zuela —Hendaiaiko

mera horrek— han, "au camp Dachau". Eta gero sekretariyua erraten zuten biziik larrutu zutela. Ba. Ba. Bon.

- Ordian, handik... somatu diren...?

- Bai, bai, bai. Mais, hura han hila da, e! Han hil dia anitz, e! Badie... mais anitzek ez dute mintzatu nahi, mais père Armand hori... hori mintzatu zen... in zuen zer bat, bilkura bat e, hixtoriya kontatzeko nola pasa zen, eta kontatu zuen guri... Zen izigarri gizon ona zen Lannepouquet hori. Semia're hala zuen e. Jende ttikiyantzat zen ona.

4.18. Lotinant alemaniarren heriotza

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-006/020
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:40:10. **Bukatu:** 00:41:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** Lotinant (teniente) aleman bat hil zutela kontatzen du. Hendaiaiko hiru "agents de ville" ak parte hartu omen zuten borrokan.

Transkripzioa

Gero hemen, hemendik eta hor... le rond-point baita CRSen'e hor ez zen... —bueno hori berriya da— eta hor pasa zen lieutenant bat bazen hilla hor, alemana e. Ba. Hor borrokatu zien Hendaiaiko "agents de ville" ak. Bazien hiru "agents de ville" Hendaian, Etcheveste, Recalt eta Fouquet. Eta hoielik uste armak'e deretxo zituzten gerla denboran hiriya zaintzeko edo... bon, alemanek, zainduik ez, alemanen baimenez. Baiño gero partitu zelaik, beren revancha in zuten hoielik ere, ta etorri ziren borrokatzeat. Eta lieutenant bat, Abadian bizi zena. Eta... haren luneten berinak axpaldian ikusten ginuen pasatzian, badakizu? Hor hila zen hura're.

5. Baserria

5.1. Alemanek herritarren zaldia eraman zituztenekoa

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-006/008
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:15:25. **Bukatu:** 00:18:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Alemanak Hendaiaetik joan zirenean, herritarren zaldia eraman zituzten. Extefanaren auzoko batek abisatu zien nola ari ziren alemanak zaldia biltzen, eta, etxeko behorra ezkutatzeko, eta hala salbatu zuten haiena. Beste hendaiaer askok, ordea, egunak egin zituzten alemanen atzetik, haiek zaldia non utziko.

Transkripzioa

- Horra, holako... Ta gero partitu zelaik, partitu zelaik, hori... hori... zaldiyak eta bizikletak, asto, eskukarro... denak bildu ziuzten, e! Eta oroitzen naiz sekulan... bazkaltzen ari giñen, eguardi ta erdi, orenbata, ta gue sukaldeat sartzeko eskailerak bazien, harrizko eskailerak. Eta lasterka norbait! Ta “ui, nor da hor?” ta auzoko gizon bat, hor abadiako onduan bizi zena, ta hura ohartu zen alemanak partieran ziela, eta zaldi guziek biltzen ziuztela. Ta bazakin gue etxean’e bazela zaldia, behorra zen. Eta aitari erran zion: “Ganis, behorra etxian duzu?” ta “ba” eta “gordeazu lehenbailen gordeazu, hemendik oren erdi baten buruan beantegi izin da. Alemanak partieran die, denak biltzen dituzte! Eta... gordeazu, lehenbailen!”. Eta, bon, denak altxatu giñen. Aitak hartu zuen bere behorra bee umiakin, eta —beldur zen abadiako kasko hortatik bistatzen baita dena eta beldur zen aita ikusteko ta— xoko-xokoa pasatu zen, eta bi mendixken erdian xokuan sasi xoko batian sartu zuen bere behorra. Beti beldur zen umia eskapatzeko edo agertzeko. Ez, ongi pasa zen. Eta handik oren bat gabe pasa zian alemanak etxean, [zeatik] egun guztiz ikusten baigintuzten esniakin gaten, gero zaldi karruakin, eta dena. Eta ahizpa batek —hura bizi da oindion ahizpa hori, eta—, atrebituena hura zen naski eta “Zoazte denak siestara, nik gardiyatuko dut heldu baldin badie”. Eta ahizpa horrek, bon, alemanak etorri zien, “Et... Mad(e)moiselle... euh... cheval?”, “puis”... “Non, non. Parti... parti le cheval. Il est parti. Soldat allemand... il est venu et il l'a amené”, eta “Ah bon. Ja, gut, gut” ta bon, gan zien. Eta gero bazien behor ederrak e, laneko behorrak eta denak ereman zituztenak. Mais bazien laborariak zortzi egun pasatu zituzten bidian, been animalia... nun abandonatuko zituzten beren animaliak! Eta bazien atxeman zituztenak, e!

- A bai?

- Ba, ba, ba, ba. Botenekoak, Pierrek, atxeman... izan zuen bere zera... zaldi ederra. Ba.

-Beitu. Denboran bizki inportanta zen behorra...

- Bakizu orduan zaldi bat egun guztiko bizian oai egozu... otua, otua... okerro naski. Orduan uai kredituak badie, orduan ez zen krediturik eta holako gauzik, e! Gerla denbora zen eta... xuhur zen, e! Eta jatekoa ere bai. Jatekoa guk ez dugu sofritu, mais karrikan sofritu dute e, jatekoa. Eta beraz, hola partitu zien alemanak, bizikletak ere bai.

5.2. Behorra bizikletaren truke

- **Hizlaria(k)**: Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: HEN-006/009
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:18:58. **Bukatu**: 00:20:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Soldadu alemaniarrei behorra bizikletagatik trukatu zien Josefinek.

Transkripzioa

Eta gero, hemen bertze neska batek in zuen golpia. Etxeat etorri zen eta

Berekoetxeko San Martin “ton, Josephine, zera... gure zaldia, behorra, ere ereman dute alemanek!”, “Behorra ereman dute alemanek?”, “Ba” “Eta uai nola gan behar dugu esniakin?”, eta “Ba, ba...”, “Eta badakizu nunguak zien?” eta “Ba ez dakit, Abadiakoak nik uste, Abadiako gaztelukoak nik uste” aitak erran zion. Ta “Bon, ta Pantxesen bizikleta seileruan da?” ta “Ba”, anaien bizikleta, “Ganen niz Pantxesen bizikletakin, eta atxemenin dut nee behorra eta ekarriko dut ba nik etxeat”. Ta gan zen bee anaien bizikletakin, eta bon, soldaru on baten gainean erori zen doike, bizikleta truk utzi zion behorra etxeat ekartzen. Eta gero, bon, hoi egia da, mais, ez da axpaldi erran nion “Errazu, Josephine, eta zure aita kontent zen zuk behorra eskuratua, e!” eta “Ba”, “Eta gero jendek ze erran zuten?” ta ba “Ze inporta du jendek ze erran zuten?”, “Ta, ba, bixtan da, deus onik ez, doike! Ongi zinela, doike! Mais nik ez dut sekulan entzun hori”. Eta, ba, hola.

5.3. Etxea txerri baten truke ordainduz

- **Hizlaria(k)**: Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: HEN-006/019
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:39:32. **Bukatu**: 00:40:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Gurasoek etxea nagusiari, Lannepouquet herriko auzapezari, urtean zerri batekin ordaintzen zioten.

Transkripzioa

Ta ez da aixpaldi, ahizpak... ahizpa batek erran nau ta egiya du. Ba gure aita ta ama ateatu zien been mixeria —ez dakit mixeria erran ditaken mais — been difikultatetik, been bizitzeko, familia hazteko difikultatetik bee nausiyari esker, Lannepouquet-ri esker. Zeen iten zuen errenta xerri bat [hazten zion], ta fini. Urtian txerri bat, e. Beraz...

5.4. Oilarraren kanta: esnatzeko seinale

- **Hizlaria(k)**: Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: HEN-006/022
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:45:28. **Bukatu**: 00:46:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Oilarrak abestean esnatzen ziren etxeakoak. Etxe txikia zen beraiena, goian etxea eta azpian ukuilua.

Transkripzioa

- Hori zen seinalea? Oilarrarekin esnatzen zinezten?
- Bai, bai, bai, bai, bai. Bai, bai. Oilarra... oilarrak oillotegiya ginduen Asposberrin. Gaiñian ginduen... Bon, apartamendu tristia zen, e! Tristia...

goxua [ez], goxua [ez]. Gela itsu bat bazen, seilaru bat ta leiho ttiki bat zuena. Belar usain on bat heldu zen! Ta han maite ginduen lo itia. Goizetan kafia aitak ekartzen ginduen, sukaldeko ondoan baitzen, ta kafia ekartzen gintuen ogeat! Amari ematen zion, bertze gelan zena, eta gu han... emaiten ginduen. Mais egia da Asposberriko etxia ez zela... ez zela... nola... ez zen bizitza... bizitza ttikiya zen. Eta gero beherian alde batian heia, aziendak eta behiak eta idiyak eta behorra're, astua're bai, eta gero, sukalde azpiyan, oilluak lo iten zuten. Eta... gelan, han gela itsu hartan lo iten zuenak... ez zen eskapoik e! Oilarrak jotzen zuelaik, kantatzen zuelaik, aitzen ginduen! Ta bagindakiun jeikitzeke tenoria hurbiltzen ai zela!

6. Aisia

6.1. Gerla bukatu zela ospatzeko besta

- **Hizlaria(k)**: Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: HEN-006/021
- **Iraupena**: 0:04:03. **Hasi**: 00:41:25. **Bukatu**: 00:45:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Besta egin zuten gerla amaitzean, meza ere ospatu zuten. Lehen aldiz utzi zien aitak gau guztia bestarako. Hendaiaiko plazan izan zen besta goizeko laurak arte.

Transkripzioa

- Eta gero ez dut aipatu hobena! Gerla hori dela, finitu zelaik, ze besta egin ginduen gaztiak.

- Alimalikoa?

- Alimaliko besta. Bon. Beraz, besta... bon, gerla fini zela, gerla fini zela. Ama zena, bon, eliztiarra zen, fede haundikoa zen, eta ama tanta Estefana, nere amatxi zen hasteko, eta ondoan bizi zena, bere ahizpa, eta norbait igorri zuen [...] biek tta-tpa-tpa oiñez gan zien mezaat, meza baitzen, gero elizako ezkil guzian joka, eta bon, bestatzen. Eta aitak bee heiako aziendak nahi zituen harek ere bazkatu, eta erran gintuen: "Bon, guk iñen dugu orga bat luzerna. Iñen dugu orga bat luzerna eta gero libro zaitze gau guziya besta iteko". Gau guziya lehen aldiko! Gau guziya besta genduen, e! Ez zen ordu e! Bai, hori besta iziga... ta gero Hendaiaiko plaza, Hendaiaiko plazan zen besta hori, goizeko lauak arte.

- Zoriona izan zen?

- Bai. Bai, bai, bai. Bon, nahiz bazien jendiak presoner zienak... gero hilak ere bai gerlan. Eta familiak triste... triste zienak, mais halere, gerla finitzia zen berri bat izigarria. Berri bat izigarria zen gerla finitzia. Eta, bon, ez ginuen usayik, gauaz iluneko behar zen sartu edo... beantenez hamaiketako, hamar-hamaiketako behar zen sartu. Eta... Bon. Eta bizikleta bat ginduen bortz ahizpena. Bat. Ta bat bazen gibelotik etorria. Bertzek oiñez ganak giñen eta bat etorri zen bizikletian ondotik. Bizikleta bat. Ta goizeko lautan bi gazteenak aspertuak giñen. Asper-asperrak giñen! Iñak giñen. Eta erran nion: "Bon, nik etxea gateko gogoia dut" ta "Bai, nik'e bai". Goizeko lauak, eta "Bon, hartuko dugu bizikleta, errain dioten bertze

ahizperi eta hartuko dugu bizikleta”. Eta errain giñoten bertze ahizperi: “Bon, hartzen dugu bizikleta ta ez gue billa ibilli, gu etxeat gaikike”. Eta bizikleta hartu gintuen ta gue bizikleta xumeak ez zuen porte-bagageik, ta bi bagiñen: bat pedaletan xutik ta bertzia zelan. Hendaiatik-eta etorri giñen, Hendaiatik Asposberriat! Eta ogian sartu ordu ai, ai, ai... aita jeiki zen, ta behar zen aitak... behiak jeitsi eta gero esne hura prestatu ta [behizaian] segitu ta... Ai! Eta bertziak ez zien sartuak! Eta sartu ta... ogian sartu ta kuxian oillarren kukurruka aitu gintuen, ta “Oillarra kukurruka? OO! Ez dugu lo iteko denborik!”. Hola pasa zen.

6.2. Gaztetan mendira joateko astirik ez

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-006/030
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:59:54. **Bukatu:** 01:00:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena:** Gaztetan lana zutenez ez zen inoiz mendira joaten; heldutan hasi zen.

Transkripzioa

- Zuk berantago ezagutu dituzu Larrun-ta bezalako mendiak?
- Nola?
- Gaztetan-ta ez zintuen...
- Ez, ez, gaztetan lana ginduen! A, ba. Nik... ni mendirat abiatu naiz, bon, senar zena bizi zelaik ere, bon, astian egun bat hartzen nuen halere. Eta lanetik eta denetik, eta, bon, semiakin jaten zuen eta gaten nitzen. Mais, halere, berrogeita hamazazpi- hemezortzi urtetan edo hola hartu dut nik mendiko zera pixkat. Neetzat denbora pittat. Bai. Ta mendiya da neke bat ungi uzten zaituena e!
- Itsasoak'e ba, itsasoa're bai, itsasoan 'e ibili naiz, ez da urrun hemendik. Baiñan mendiyak bertze... bertze indar bat ematen zaitu.

7. Herria, azpiegitura

7.1. Nola ikusi duzu Hendaia bilakatzen?

- **Hizlaria(k):** Irastorza, Extefana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** HEN-006/024
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:47:04. **Bukatu:** 00:49:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- **Laburpena:** Penaz gogoratzen du Hendaiak jasandakoa, sobera aldatu baita. Kanpoko jendea sartu eta nortasuna galdu dela dio, eta ondorioz, euskara txikitu dela.

Transkripzioa

- Nola ikusi duzu Hendaia bilakatzen? Begi onez? Pena duzu holakoa bilakatu baita?
- Nik pena dut. Pena dut.
- Zer ez duzu gustuko?
- Ez dakit. Lehen herri ttiki bat zen, hiri ttiki bat zen. Eta, bon, ez da gibela gan behar, behar da beti aintzina gan, mais halere sobera aldatu da. Saltegi ttiki guziyak desagertu dire, Hendaiaiko karrikan oai midiku ta hoiek ere harat... ez... sobera aldatu da. Nere gustuko Hendaia sobera aldatu da. Ez da... kanpoko jende anitz sartu da.
- Nortasuna galdu du Hendaia?
- Bai. Bai. Hortako da eskuara're ttikitu. Kanpoko jendea sartu da, heiek ez dakite eskuaraz, anitz kontra die eta... bon, ez... nik... gure Hendaia ttikiya... pena da. Pena da gero, sobera... sobera gauza aldatu da. Plaza hori're, ikusten duzuna, Hendaia ezagutzen duzu, bon, plaza hori bertze bizitasun bat zen lehen: zaldi karruak been esniakin, astuak batzutan, astuak xixtua, Biriaturtik etortzen zien e! Gero merkatua ez zen plazan egiten. Merkatu tokiya bada Hallean, zertako ez da segitu hor? Gero kioska hori kendu dute, ez dut konprenitzen zertako. Horko hostaleur guziek anitz galtzen dute bixintxotan eta besta delarik. Ez dut... bon, bertzetan'e, bertzetan'e... aldatu da e!

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Txikitatik hiru hizkuntza menderatu, baina norbere herrian arrotz (HEN-003/002)

Hendaian jaio zen. Orduko Hendaia oraingoarengandik oso desberdina zen. Jende "ospetsua" zegoen herrian eta beraiek arrotz sentitzen ziren: burla egiten zieten "espainol karakol" deituta. Etxean beti euskaraz egiten zuten, nahiz eta txikitatik jakin espainolez eta frantsesez ere. Eskolan, ordea, frantses hutsa egin behar izaten zuten. Biriaturkoek euskararako erraztasun handiagoa zuten eta ondo konpontzen ziren haiekin.

2. Gurasoen jarrera ikasketekiko eta euskararekiko (HEN-003/003)

14 urterekin ikasketa-agiria lortu zuten. Aitaren aldeko familia burgesa zen eta euskararen aldeko jarrera sendoa zuen; amaren aldekoa, aldiz, ez zen burgesa eta ez zuen halako tinkotasuna euskara egiteko. Aitaren familian, anai-arreben artean zuka egiten zuten eta gurasoei eta kanpokoei berorika. Amaren familian hika egiteko ohitura zegoen. Aitak garrantzia handia ematen zien ikasketei eta Andonik ikasketa-agiria ateratzen ez bazuen, soldadutzara bidaliko zuela esan zion.

3. Etxean diru gutxi eta lanean hasi behar 14 urterekin (HEN-003/004)

Eskolan ongi moldatzen zen. Etxean diruz gaizki zebiltzan eta ikasten jarraitzeko arazoak zeudenez, lanean hasia erabaki zuen Andonik. Itsasontziko sukaldari nahi zuen izan, baina lana bilatzeko arazoak izan zituen hasieran. Azkenean, 14 urterekin harakin-lanetan hasi zen.

4. Parisera ofizioa ikastera (HEN-003/005)

Gehiago ikastera animatu zuten eta 18 urterekin Parisera joan zen ofizioa ikastera. Parisen lan asko egin zuen, han dena berria zen beretzat. 19 urterekin soldadutzara joan zen.

5. Soldadutzan sortu politikarako kontzientzia (HEN-003/006)

19 urte eta erdierekin soldadutzara joan zen, baina esperientzia txarra izan zen hura. Ez zituen hango aginduak onartzen, ezta aginduak ematen zituztenak ere. Garai hartan hasi zen politikarekiko kontzientzia hartzen eta errebelatzen. Azkenean kartzelan bukatu zuen soldadutzan.

6. Euskal kontzientzia hartzen (HEN-003/007)

Soldadutza bukatutakoan, Parisera itzuli zen. Euskal Etxean hasi zen sartzen orduan. Han lagunak egin zituen. Garai hartan bazuen Hegoaldeko egoeraren berri (Franco, Gerra Zibila, mugak itxita...), baina ez zuen militantziarik. Pixkanaka konturatzen joan zen Iparraldeko errefuxiatu gehienen artean konplizitatea zegoela. Udan Pasaiara joaten zirenean, duintasuna "berreraikitzen" zuten, han Etxarri familiak izena baitzuen; Hendaian, ordea, gutxietsi egiten zituzten.

7. Euskal Etxean nola sartu zen (HEN-003/008)

Parisen Euskal Etxean sartu zen eta Paul Etxemendi ezagutu zuen. Enbata egunkaria saltzen hasi zen.

8. Euskal Etxeko ekintza politikoak (HEN-003/009)

Parisko Euskal Etxean ezagutu zituzten ETA eta EGI-ko lehen errefuxiatuak, PNV-ko ordezkariak, exilioko eusko jaurlaritza... 1962an Kristian Etxaluz atxilotu zuten eta Paristik lagundu egin zioten; garai hartan testuingurua desberdina zen eta errazagoa zen Frankismoaren aurka egitea. Mugimendu politiko handia zuten garai hartan.

9. Euskal giroko ekintza kulturalak (HEN-003/010)

Parisen leku ederra prestatu zuten larunbatetan elkartzeko eta hainbat ekintza antolatzen zituzten han: besteak beste, antzerki bat prestatu zuten. 1963-1966 artean izan zen hori, hain zuzen ere, euskal kulturaren berpizkundean. Behin topaketak egin zituzten bretoiekin eta Andoniri tokatu zitzaion hitzaldia ematea.

10. Paristik Euskal Herrira itzultzeko erabakia (HEN-003/012)

Infiltrazioak izan zituzten bai Euskal Etxean, bai larunbatetako aretoan. Hiru lagunaren artean erabaki zuten Euskal Herrira bueltatzea. Andoni harakina zen, baina ez zuen nahi bere negozioa sortu; merkataritza-agente sartu zen.

11. Beraiek sortutako enpresaren hazkundera (HEN-003/015)

70. hamarkada hasieran, Sokoan sartu zen lanean; hasiera apala izan zuten, baina Hendaia enpresa garrantzitsuenetakoa izatera iritsi da gaur egun. Hasiera batean, hala ere, helburua ez zen enpresa hainbeste haztea.

12. Sokoan hasi eta Sokoan bukatu, tartean beste enpresa batzuk ezagututa (HEN-003/016)

Enpresan gorabeherak izan zituzten: langileen errebindikazioak, kooperatiba sortzeko eskaintzari langileek uko egin zioteneko... Hondarribiko altzari-enpresa batean sartu zen eta 15 urte eman zituen han. Oso esperientzia ona izan zuen han. Geroago Logroñora joan zen beste enpresa batera lanera. Azkenean, Sokoara itzuli zen eta han hartu zuen erretiroa.

13. Hendaian ikastola sortzeko izandako borroka (HEN-003/017)

Sokoa sortzen ari zirela, apaiz irakasle euskaltzale bat ezagutu zuen. Ikastolak sortzeko moduan ados jartzen ez zirenez, bi ikastola sortu zituzten: bata Elizari atxikia, eta bestea ez. Borroka handia izan zuen garai hartan gai hori zela eta, eta denetik esan zuten berari buruz. Dibortzioa garai hartan ez zegoen ondo ikusia.

14. Hendaia ikastolaren sorrera: andereñoa, logoa eta egutegia (HEN-003/018)

Ikastola sortu zutenean, prestakuntza handiko andereñoa izan zuten: Jone Forkada. Garai hartan atera zen "Amalur", lehen euskal filma, eta Andoniri deitu zioten filmean ager zedin. Garai hartan, halaber, Jorge Oteizak euskal giza enbaxada sortu nahi zuen Parisen: "la tridimensional". "Amalur" filmetik sortu zen Hendaia ikastolaren logoa, geroago Seaskarena ere izango zena. Seaskaren egutegia egiteko ideia berea izan zen.

15. Iparraldeko lehenengo Olentzero izandakoa (HEN-003/020)

Iparraldeko lehen Olentzero izan zen Andoni 4 urte zituela: izan ere, gerraostean, kanta-taldea sortu zen Hendaian eta Olentzero egitea erabaki zuten haiek. Zaharrenek gerra aurretik ere Hendaian ospatzen omen zuten Olentzero.

16. Kontrabandoa eta klandestinitatea Hendaian (HEN-003/022)

Kontrabandoan ibilitakoa da txiki-txikitatik eta dirua kontrabandoan nola pasatzen zuen azaltzen du. Hendaian kontrabandoak aukera ematen zuen sos batzuk ateratzeko. Pasaiara oporretara klandestinoki joaten zen, pasaportetik ez baitzuen.

17. Hegoaldekoek harrapatutako arraina Hendaian saltzen (HEN-003/023)

Hendaiaiko arrantzaleak itsasora irteten ziren, itsasoan Hegoaldeko arrantzaleei arraina erosi eta barkua kargatutakoan Hendaian saltzen zuten. Andoniren aitak kaierak izaten zituen kontu haiek eramateko; behin polizia etxea miatzera etorri zen eta Andonik kaier hura hartu eta ezkutatu egin zuen eskolako kaierekin batera.

18. Salcedo tailerretatik soinekoak egitera Iparraldera (HEN-003/024)

Donostiako Salcedo tailerretik etortzen ziren jostunak Iparraldera soinekoak egitera; joan-etorri ugari egiten zituzten soinekoa bukatu arte. Jostun haiek beren etxetik pasatzen ziren. Behin Gabino jostuna etorri zenekoa kontaktzen du.

19. Aita kontrabandoan eta kontrabandoaren arriskuak (HEN-003/025)

Aita hainbat gauzarekin aritzen zen kontrabandoan eta oso arriskutsua izaten zen batzuetan. Mugan kontrabandoak zer norabide izaten zituen azaltzen du. Behin ibaian igerian zebilen emakume bati guardia zibilek tiro egin zioten ihesi zebilelakoan.

20. Bidasoa ibaia, Euskal Herriko "Berlingo murrua" (HEN-003/026)

Gerraostean muga bi urtez itxita egon zen. Gerraostean, anaia Pasaian bizi zen osaba-izeben etxean eta noizean behin bisitan etortzen zitzairen: ibaiaren beste aldetik agur egiten ziren. Guardia zibilen kontrola leku askotan zegoen, baina zigarro pakete batekin haiek erosterik bazegoen.

21. Jendeari muga pasatzen laguntzeagatik errieta eta aholkuak (HEN-003/030)

Garai batean, Andoni Hegoaldetik errefuxiatuak pasatzen ibili zen. Aita konturatu zenean, errieta handia egin zion, baina aldi berean aholkuak eman zizkion hori nola egin behar zen esanez.

22. Kontrabando garaiko anekdotak eta egoera ekonomikoa (HEN-003/031)

Espainian egoera aldatu zen eta Europar Batasunean sartu zen. Gerraostean batzuek estutasun ekonomiko oso larriak pasa zituzten Hendaia inguruan. Kontrabandoko anekdotak kontaktzen ditu.

23. Kanpotarrak harrituta Hendaiaiko kontrabandoarekin (HEN-003/033)

Kanpotarrak zeharo harrituta geratzen ziren Hendaian kontrabando bidez zenbat gauza sartzen zen ikusita.

24. Espainia Europar Batasunean sartzeak ekarritako aldaketak (HEN-003/034)

70eko hamarkadatik aurrera pixkanaka gutxitzen joan da kontrabandoa. 1992tik, Espainia Europar Batasunean sartu zenetik, jende askoz gehiago etortzen da Hegoaldetik Hendaia.

25. Irunen eta Hendaiaren arteko harreman on historikoa (HEN-003/036)

Hendaia eta Irunen artean ez da istilurik egon izan historia modernoan; bai, ordea, Hondarribikoekin. Hendaia eta Irun arteko zubiaren historia eta beste hainbat gertakizun kontatzen ditu, Irunen eta Hendaiaren arteko harreman onaren erakusgarri.

26. Hendaia eta Hondarribia arteko harremana historian zehar (HEN-003/037)

Hondarribia eta Hendaiaren artean egon izan dira ika-mikak historian zehar; horri buruzko azalpen historikoak ematen ditu. Elkertasuna ere egon izan da, hala ere.

27. Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko muga (HEN-003/039)

Gaur egun muga ez da hain fisikoa, baina buruan oraindik jarraitzen du. Bere iritzia ematen du gaur egungo egoeraren gainean.

28. Eustaquia izena zergatik jarri zioten (HEN-004/002)

Eustaquia izena aitajaunak jarri zion. Oso Eustaquia gutxi egon izan dira Hendaian azken urteetan. Anaiaren izena Sebero zen eta hori ere ez zen batere izen arrunta.

29. Hondarribiko bizimodu errazetik Hendaiako estutasunetara (HEN-004/005)

Hondarribian bizi zirenean, ongi bizi ziren. Baina geroago, Hendaiara joan zirenean, miseria ezagutu zuten. Hasieran ez zekien frantsesez, baina zerbait ikasi zuenean, diru pixka bat irabazteko balio izan zion.

30. Aita arrantzan sartu familia aurrera ateratzeko (HEN-004/006)

Hendaiara iritsi zirenean, estutasun ekonomiko handiak pasa zituzten. Aita arrantzan sartu zen lanean, hondartzatik gertu arrain asko zegoen garaian. Aitak zer arrain mota harrapatzen zuen aipatzen du.

31. Hondarribitik Hendaiara itsasontziz ihesi (HEN-004/009)

1936an gerrarengatik joan ziren Hondarribitik Hendaiara itsasontziz. Itsasontzi hartan 40 lagun joan ziren. Gerora, izeba bat Hondarribira itzuli zen familiarekin; beste izeba bat Bartzelona aldera joan zen, baina Eustaquiaren familia Hendaian gelditu zen.

32. Hendaiako lehenengo urteetako bizi-baldintza gogorrak (HEN-004/010)

Hasieran, Hendaiara iritsi zirenean, baldintza gogorretan bizi ziren, etxean hotz handiak pasatzen. Urik ere ez zuten etxean eta iturrira joan behar izaten zuten ur bila.

33. Arropa garbitzera iturrira (HEN-004/011)

Arropa garbitzeko, ama garbitokira joaten zen. Garbitoki hura non zegoen azaltzen du. Han emakume ugari elkartzen ziren. Arropa buru gainean eramaten zuen amak eta xaboiarekin garbitzen zuen.

34. Amak arroparen kolorea nola zaintzen zuen (HEN-004/013)

Hondarribian bizi zirenean, amak maindireak busti eta eguzkiarekin zuritzen zituen. Arropan ere bola urdin batzuk ematen zituen, beste kolore bat har zezan.

35. Etxean jaten zutena (HEN-004/014)

Etxean arraina jaten zuten, porru-patata, zopa, arroz-esnea... Amonak janaria oso ondo prestatzen zuen. Oilaskoa jaten zutenekoa kontatzen du.

36. Lehenengo autoak eta autobusak Hendaian (HEN-004/016)

Lehen Hendaian auto gutxi zeuden. Baziren aberats batzuk kabrioletak gidatzen zituztenak; besteak oinez eta bizikletaz ibiltzen ziren. Eustaquiak bere lehenengo bizikleta nola erosi zuen azaltzen du. Autobus gutxi zeuden lehen: gerra denboran astean bi eta oso makala zen.

37. Errefuxiatua izanda, Hendaian harrera ona (HEN-004/019)

Berak ez du inoiz arazorik izan Hendaian Hondarribikoa izateagatik. 14 urtera arte ibili zen eskolan. Etxean euskaraz hitz egiten zuen, baina kanpoan ez, bere lagunek ez baitzekiten euskaraz. Berak eskolan eta lagunartean ikasi zuen frantsesez.

38. Maisu-maistrek umeak nola tratatzen zituzten kontrolatzen zen (HEN-004/021)

Lehen gauza sinpleak ikasten zituzten: matematikak eta frantsesa. Maistrek lehen asko jotzen zituzten ikasleak. Maistra bat Hendaian Biarritzera bidali zuten umeak asko jotzeagatik. Eustaquiaien aitak maisuari aurre egin zion eta semea ez jotzeko esan.

39. Festara ondo pasatzera joan nahi bai, baina ezin nahi beste gelditu (HEN-004/024)

18 urterekin etxera goiz itzultzeko esaten zioten. Behin ez zuen obeditu eta errieta egin zioten gero etxean. Festara joatea asko gustatzen zitzaion: dantzatzea eta ondo pasatzea. Lehen zer dantza mota egiten zuten aipatzen du.

40. Musika eta dantza, nahikoa ondo pasatzeko (HEN-004/025)

Besteei begira ikasi zuen dantza egiten. Neskek mutilekin dantzatzen zuten, ez zegoen gaizki ikusia. Herri txikietan gehiago begiratzen zen norekin dantzatzen zuen jendeak. Dantza egiteko egunak noiz izaten zituzten aipatzen du. Ez zuten edaten festa zenean, nahikoa zuten musikarekin.

41. Hendaiara dantzara leku eta adin guztietako jendea (HEN-004/027)

Festa zenean, orkestra egoten zen eta denak dantzan aritzen ziren. Ezkondu ostean ere jende asko joaten zen festa haietara ere. "Bioletaren festa" izaten zenean kasino zaharrean, inguruko herrietatik ere etortzen ziren hara.

42. II. Mundu Gerran alemanak Hendaiara iritsi zirenean (HEN-004/033)

II. Mundu Gerran Alemaniako tropek Hendaia okupatu zutenekoa oroitzen du. Beldurra pasa zuten orduan. Behin bi aleman etorri zitzaizkien etxera, aitari zenbait gauza galdetzeko.

43. GESTAPO aitaren atzetik jendea Hegoaldera pasatzen laguntzeagatik (HEN-004/034)

Langile batzuk Alemaniara bidali nahi zituzten lanera, baina aitaren barkuan ihes egin zuten Hegoaldera eta alemanek aitari kontuak eskatu zizkioten gero. Behin GESTAPOkoak aita harrapatzen saiatu ziren jendea Hegoaldera pasatzen laguntzen aritzeagatik: tranpa jarri zioten, baina aita nabaritu zuen eta erantzun egokiak eman zituen libre utz zezaten. Bestela, Alemaniara eraman izango zuten.

44. II. Mundu Gerran jendeari ihes egiten laguntzen (HEN-004/035)

II. Mundu Gerran, aita jendeari Hondarribira pasatzen laguntzen zion bere itsasontzian. Eustaquiaren lehengusina Alemaniara eraman nahi izan zuten, baina Bordelen ihes egin eta etxera etorri zitzaien. Beldur handiz bizi zen. Aita gaez pasatzen zuen jendea Hegoaldera.

45. Eustaquiaren aita: gizon ona (HEN-004/036)

Eustaquiaren aita gizon ona zen. Gerra garaian kalean zeuden umeei arropa ekartzen zien eta batzuetan etxekoentzat ez zen iristen kanpokoei emateagatik.

46. Salaketak eta haien ondorio larriak (HEN-004/037)

Gerra-garaian salaketa-giroa zegoen. Hendaian salatu zituzten gazte batzuei buruz hitz egiten du: Alemaniara eraman zituzten eta han hil ziren. Salatari bat Hendaiakoa bertakoa zen eta gerra amaitutakoan herriak zigortu egin zuen.

47. Gerraren amaierako poza eta festa (HEN-004/040)

Alemanak Hendaikatik joan zirenean, festa handia izan zen: soldaduak etorri ziren, dantzak egin zituzten... Beltzak ere etorri ziren haiekin eta Eustaquiari beldurra ematen zioten.

48. "Alemanak bueltan datoze!" (HEN-004/041)

Alemanak joan zirenean, denak plazan soldadu frantsesen zain zeuden; baina alemanak bueltatu ziren zurrumurrua zabaldu zen eta denek etxera beldurrez alde egin zuten. Gerra bukatzean, festa berriro hasi ziren.

49. Etxean gipuzkeraz (HEN-007/004)

Lasarten jaiok dira Miren eta Gorka. Hendaiara aldatu ziren bizitzera. Etxean gipuzkeraz egin izan dute beti, eta kalean, tokiko euskalkira moldatu dira.

50. Lapurterara moldatu baina "rr" a galdu gabe (HEN-007/006)

Mirenek gogoan ditu Hendaiako ikastolan hasi zeneko garaiak. Etxeko hizkera moldatzeko arazorik ez zuen izan, baina hautu kontzientea izan zuen "rr"-ari (erre bikoitzari) eustearena. Gorkak ere eutsi egin dio hots horri, eta Hendaian eskolatu berritako gertakaria kontatzen du.

51. Hendaiatik Kanbora, "rr" a garraio (HEN-007/008)

Hendaiako ikastolatik Kanboko kolegiara aldatzea egokitu zitzaizenean ere, "rr"ari eutsi ziotela kontatzen dute Mirenek eta Gorkak.

52. Mugak harrapatuta (HEN-007/010)

Gazte-gaztetatik Gipuzkoatik Lapurdira eta alderantziz atzera eta aurrera bizi izanak arrastoa utzi du Gorka eta Mirenen identitatetan.

53. Aisialdian gune itxietarako joera (HEN-007/014)

Gaur egungo gazteek aisialdian izan ditzaketen joera nagusiak detektatzea ez da lan samurra, baina internetak gero eta presentzia handiagoa duela dirudi, eta gune itxietan biltzea ere izan daiteke beste joera aipagarrietako bat.

54. Kuadrillak eta lagun "sateliteak" (HEN-007/016)

Mirenek eta Gorkak kuadrilla bakarrari eusteko zailtasunak azaltzen dituzte.

55. Hesi bat eta bi mundu (HEN-007/017)

Gorkak hesi bat gogoratzen du Hendaiako Ikastola eta Irandatz Kolegioa bereizten zituena; mundu bat zen alde batera, beste bat bestera.

56. Ghetto sentazioaz (HEN-007/018)

Bigarren hezkuntzako ikasketak euskaraz egiten jarraitu ahal izateko, Hendaiatik kanpo egin behar izan zituzten Mirenek eta Gorkak, eta horrek "atera" egin zituen, nolabait esateko, euren bizitokiko egunerokotik.

57. Komunitateen arteko tentsioak (HEN-007/019)

Euskararen ofizialtasun ezak eta Frantziako hezkuntza sistemak eragin zuzena izan dute euskaldunen eta frantses hiztunen arteko harremanetan eta aisialdian. Lander Garro idazlearen "Gerra txikia" liburuaren aipamena.

58. Festa egiteko bi modu (HEN-007/021)

Iparraldean eta hegoaldean parranda egiteko moduez.

59. Kale-girorik ez (HEN-007/022)

Kale girorik ez da sumatzen Hendaian, eta taberna-giroa ere ezberdina da, hegoaldekoarekin konparatuta.

60. Hizkuntza hautuak (HEN-007/025)

Mirenen kasuan hizkuntzak pisua izan du bere ingurua "hautatzeko" garaian.

61. Lapurdin parranda egiteari buruzko hainbat kontu (HEN-007/026)

"Iparraldeko" eta "hegoaldeko" parranda giroak bereizten dituzten dituzten hainbat faktore aipatzen dituzte Gorkak eta Mirenek.

62. Guztiok gara "tradizionalak" (HEN-007/028)

Ama izateko adinari eta bikote harremanei buruz.

63. Generoa eta parranda I (HEN-007/031)

Generoaren gaiak presentzia gehiago du "hegoaldean", "iparraldean" baino; jarreratan, ordea, ez da alde nabarmenik sumatzen.

64. Generoa eta heziketa (HEN-007/032)

Udalekutan hezitzaile lanetan aritzen da Miren, eta horrek eskaintzen dio gaztetxoek portaera behatzeko aukera.

65. Generoa eta parranda II (HEN-007/034)

Nesken eta mutilen jarrerak.

66. Generoa eta hezkuntza (HEN-007/035)

Nesken eta mutilen rolak. Titular handietatik, egunerokotasunaren ernamuinetara.

67. Generoa eta umorea (HEN-007/037)

68. Botere harremanak: kasu hipotetiko bat (HEN-008/002)

Estereotipoak, botere harremanak, ligatzeko jarrerak... dituzte hizpide pasarte honetan.

69. Moda kontuak Iparraldean eta Hegoaldean (HEN-008/004)

Moda kontuan aldeak daudela esaten dute biek Ipar eta Hego Euskal Herrian. Mirenek Hegoaldeko kuadrilla euskaldunak bereizten dituztela dio arroparen arabera. Iparraldean estiloa hippieagoa dela diote. Gorkak giro erdalduna eta euskalduna berezi behar direla azpimarratzen du.

70. Hegoaldeko identitatea Iparraldean eredu (HEN-008/005)

Hegoaldeko euskal identitatea Iparraldekoen eredu dela dio bikoteak: modan, komunikabideetan, literaturan...

71. "Modu inkontzientean Hegoaldetik edaten dugu" (HEN-008/006)

Komunikabideetan, idazteko moduan, nahigabeen ere Hegoaldetik edaten dutela aipatzen du bikoteak.

72. Hizkerak egokitzeko gaitasuna I (HEN-008/008)

Lekuaren arabera hizkera hautatzen dute. Mirenek eroso sentitzeko gipuzkera edo lapurtera erabili aukeratzen du.

73. Hizkerak egokitzeko gaitasuna II (HEN-008/009)

Gorkak bere batua moldatzen du, baina lapurteraz hitz egitea ez zaio natural egiten.

74. Aurreiritziz beteriko artikulua I (HEN-008/011)

Estereotipo eta look euskaldunez mintzatzen zen artikulua batez ari da Gorka lapurteraz.

75. Aurreiritziz beteriko artikulua II (HEN-008/012)

Euskal abertzaleen estereotipo eta aurreiritziak erabiliz idatzi zen artikulua batean jarritakoa azaltzen du Gorkak.

76. Miren lapurteraz: sare sozialak (HEN-008/014)

IKT eta sare sozialez ari da Miren pasarte honetan. Lapurtera erabiltzen du honen inguruan hitz egiteko.

77. Hizkuntza ohiturak (HEN-008/015)

Lapurteraz elkar entzutea bereziki arraroa egiten zaio bikoteari.

78. Irainak, zein hizkuntzatan? (HEN-008/017)

Erdarara jotzen dutela aipatzen dute Mirenek eta Gorkak. Haserretzean ere frantsesez zein gaztelaniaz adierazten dira.

79. Haserrea adierazteko hizkuntzak (HEN-008/019)

Mirenek, gipuzkeraz ari denean gaztelaniazko hitzak erabili ohi ditu iraintzeko eta haserrea adierazte. Lapurteraz ari denean, ordea, frantsesezkoak.

80. Euskarazko irainak zabaltzeko aukerarik bai? (HEN-008/021)

Irainak euskaraz esaten hasteko hezkuntzak garrantzia duela azpimarratzen du Mirenek. Jendeak miresten dituen pertsonak eredu direla ere dio, Maialen Lujanbio, Xabi Alonso, Gorka Urbizu...

81. Euskararen erronka: gazte hiztegia (HEN-008/023)

Lekuz leku egoera aldatzen dela dio bikoteak, euskaraz argota sortzea zenbait herritan ez baita hain zaila.

82. Euskararen egoera, aldatuko al da? (HEN-008/025)

Gazte hizkerari dagokionean, euskarak erdara ordezkatzeko denbora behar du bikotearen iritziz, Iparraldean dagoen egoeratik begira.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com